Taula 9. Joan-etorrien banaketa, etapa kopuruaren eta Lurralde Historikoen arabera

Etapak	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
1	986.772	98,7	3.506.443	97,9	1.896.739	98,8	6.389.954	98,3
2	11.767	1,2	63.278	1,8	22.430	1,2	97.475	1,5
3	880	0,1	11.839	0,3	128	0,0	12.847	0,2
GUZTIRA	999.419	100	3.581.561	100	1.919.297	100	6.500.277	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Garraiobide ezberdinen erabilera, neurri handi batean, burutzen diren joan-etorrien tipologiaen arabera zehazten da. Distantzia gutxiko joan-etorrietan, ibilgailu ez-motordunek eskuratzen dute garrantzia handien, nahiz eta, distantziak handitzen diren heinean, protagonismoa galtzen duten, garraiobide motordunen alde. Hori dela eta, udalerri barruko joan-etorrietan, oinezko joan-etorriak % 63,5era iristen dira; eskualde barrukoetan, berriz, ehuneko hori % 9,8ra murrizten da.

Azkenik, garraiobide kolektiboak (autobusa eta trena), batez ere, eskualde barruan egiten diren joan-etorrietan erabiltzen dira (% 10,7 autobusa eta % 16,0 trena), baina beti automobilaren atzetik daude.


Taula 10. Joan-etorrien banaketa, tipologia eta garraiobidearen arabera (%)

Garraiobidea	Udalerri barnekoa	Eskualde barnekoa	Lurralde barnekoa	Lurralde artekoa	Kanpoko	GUZTIRA
	4.395.581	1.194.478	519.189	311.708	79.320	6.500.277
Oinez	63,5	9,8	0,9	2,0	2,4	44,9
Bizikleta	2,6	0,8	0,7	0,2	0,6	2,0
Ez-motordunak	66,0	10,6	1,7	2,1	3,0	46,9
Auto gidaria	17,6	48,1%	66,3	69,4	70,3	30,2
Auto bidaiaria	4,8	9,5	11,6	13,4	18,8	6,7
Taxia	0,2	0,2	0,1	0,0	0,0	0,2
Autoa	22,6	57,7	77,9	82,8	89,1	37,2
Motozikleta	0,8	1,2	0,4	0,0	0,7	0,8
Urbanoa	5,0	0,3	0,0	0,0	0,0	3,4
Hiriartekoa	0,2	8,2	6,1	3,1	1,2	2,3
Zerbitzu pribatua	1,2	2,2	1,3	2,4	0,7	1,4
Autobusa	6,4	10,7	7,4	5,4	1,9	7,2
Tranbia	0,8	0,0	0,0	0,0	0,0	0,5
Renfe	0,2	1,2	2,2	1,0	0,0	0,6
Feve	0,0	0,1	0,2	0,0	0,0	0,0
Metroa	1,9	13,0	1,5	0,0	0,0	3,8
Euskotren	0,5	1,8	3,4	1,2	0,0	1,0
Trena	3,3	16,0	7,3	2,1	0,0	5,9
Beste batzuk	0,4	0,8	0,1	0,1	0,6	0,4
Multimodala	0,5	2,9	5,3	7,4	4,7	1,7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Mugikortasun okupazionalak (lana eta ikasketengatik egindako joan-etorriak) EAEn egiten diren joan-etorrien % 41,9 sortzen ditu, % 29,9 lanak eta % 12,0 ikasketek. Halaber, aisia bigarren lekuan kokatuko litzateke, joan-etorrien % 22,0 sortzen baititu. Aisiak joera-beherakada izan du, eta horrek azken urteetako bilakaera eten du. Covid-19ak eragindako pandemiak jokabide aldaketetan eragindako ondorioei erantzuten die horrek.

Irudia 9. Joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea


EAEen burutzen diren joan-etorrien tipologiari dagokionez, gehienak udalerri barrukoak dira (% 67,6). Araba da mota horretako joan-etorrien ehuneko handiena duen Lurralde Historikoa, % 84,4. Kanpoko desplazamenduak guztizkoaren % 1,2 baino ez dira.

Taula 11. Joan-etorrien banaketa motaren eta bizileku den Lurralde Historikoaren arabera

Izaera	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Udalerri barnekoa	843.766	84,4	2.357.601	65,8	1.194.215	62,2	4.395.581	67,6
Eskualde barnekoa	40.413	4,0	763.792	21,3	390.273	20,3	1.194.478	18,4
Lurralde barnekoa	28.842	2,9	267.577	7,5	222.770	11,6	519.189	8,0
Lurralde artekoa	62.800	6,3	157.868	4,4	91.040	4,7	311.708	4,8
Kanpoko	23.599	2,4	34.722	1,0	20.999	1,1	79.320	1,2
GUZTIRA	999.419	100	3.581.561	100	1.919.297	100	6.500.277	100


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 10. EAEko joan-etorrien banaketa, garraiobide motaren arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 11. Joan-etorrien banaketa, jatorri eskualdearen eta erabilitako garraiobide motaren arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 12. Joan-etorrien banaketa helmuga eskualdearen eta erabilitako garraibide motaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 13. Joan-etorrien banaketa motorizazioaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Emakumeek eta gizonak egindako joan-etorri kopurua berdintsua da. Hala ere, emakumeen mugikortasun-ereduaren ezaugarri nagusia garraiobide ez-motordunen erabilera handiagoa da (% 52,1 emakumeak eta % 41,6 gizonak), eta, horrez gain, emakumeek erabiltzen dituzte gehien garraio publikoak (% 14,2 emakumeak eta % 8,9 gizonak). Horren ondorioz, emakumeek askoz gutxiago erabiltzen dituzte autoa eta motozikleta (% 29,8 versus % 44,6 eta % 0,3 versus % 1,0, hurrenez hurren).

Taula 12. Joan-etorriak garraiobidearen eta sexuaren arabera

Garraiobidea	Gizona		Emakumea		EAE	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Ez-motordunak	1.342.743	41,6	1.704.877	52,1	3.047.620	46,9
Autoa	1.441.301	44,6	973.846	29,8	2.415.147	37,2
Motozikleta	42.456	1,3	11.438	0,3	53.893	0,8
Autobus-zerbitzu pribatua	49.138	1,5	43.693	1,3	92.831	1,4
Errepidezko garraio kolektiboa	129.410	4,0	242.668	7,4	372.078	5,7
Trena	158.891	4,9	222.473	6,8	381.364	5,9
Beste batzuk	16.372	0,5	10.649	0,3	27.021	0,4
Multimodala	48.633	1,5	61.690	1,9	110.322	1,7
GUZTIRA	3.228.944	100	3.271.333	100	6.500.277	100


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Sexuaz gain, alde nabarmenak daude garraiobideen erabilerari dagokionez, pertsonen adinaren arabera. Hain zuzen, muturreko segmentuak dira, alegia, pertsona nagusiak eta gazteak, neurri handiagoan garraiobide ez-motordunak erabiltzen dituztenak, eta horrek lotura du, batez ere, ibilgailuetarako sarbidearekin eta horien eskuragarritasunarekin. Aitzitik, autoa 20 eta 64 urte bitarteko adin-tarteetan erabiltzen da gehienbat, eta erabilera hori bereziki handia da gizonen artean, adin-tarte oso horretan % 56tik gorako barneratze-kuota izanik.

Taula 13. Adin-talde bakoitzeko joan-etorriak, garraiobidearen eta sexuaren arabera (%)

	EAE	7-19		20-44		45-64		65 eta gehiago	
		Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.
	6.500.277	412.177	372.019	947.216	1.001.811	1.174.770	1.156.241	694.781	741.263
Ez-motordunak	46,9	50,2	54,5	30,4	41,0	32,4	45,0	67,3	77,2
Autoa	37,2	21,4	21,2	56,0	39,0	56,2	35,7	23,3	12,3
Motozikleta	0,8	0,6	0,0	1,6	0,8	1,9	0,3	0,4	0,0
Autobus-zerbitzu pribatua	1,4	9,8	9,4	0,1	0,1	0,6	0,5	0,1	0,3
Errepidezko garraio publikoa	5,7	7,3	7,2	3,9	8,1	3,2	8,3	3,6	5,2
Trena	5,9	7,4	5,7	5,7	8,6	3,9	7,8	4,0	3,3
Beste batzuk	0,4	0,7	0,1	0,2	0,1	0,6	0,3	0,5	0,8
Multimodala	1,7	2,6	2,0	2,1	2,3	1,1	2,2	0,7	0,9

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 14. Joan-etorrien banaketa garraiobidearen eta adinaren arabera

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Mugikortasuna jarduera ekonomikoaren arabera aztertuz gero, esan behar da, logikoa denez, pertsona landunak direla joan-etorri gehien sortzen dituztenak. Horrela, azpimarratzekoa da talde batzuek neurri handiagoan erabiltzen dituztela garraiobide ez-motordunak, batez ere, etxeko lanak egiten dituzten pertsonen kolektiboak (% 71,6), erretiratuak, pentsiodunek eta bestelako jarduerarik ez dutenak (% 70,4); eta, ondoren, langabeek (% 60,6) eta ikasleek (% 48,7). Automobilari dagokionez, pertsona landunen artean, joan-etorrien % 53,1 garraiobide honen bidez egiten dira; ehuneko hori gainerako kolektiboaren kasuan baino askoz handiagoa da.

Taula 14 Joan-etorriak, garraiobidearen eta jarduerarekiko harremanaren arabera (%)

Garraiobidea	Landunak	Langabeak	Ikasleak	Erretiratuak, pentsiodunak eta beste inaktibitate mota batzuk	Etxeko lanak	Guztira EAE
	3.325.769	356.234	991.677	1.528.445	298.151	6.500.277
Ez-motordunak	31,8	60,6	48,7	70,4	71,6	46,9
Autoa	53,1	25,3	22,4	18,8	17,1	37,2
Motozikleta	1,2	1,6	0,4	0,2	0,0	0,8
Autobus-zerbitzu pribatua	0,4	0,0	7,6	0,3	0,1	1,4
Errepidezko garraio publikoa	5,0	6,0	9,4	5,0	5,0	5,7
Trena	6,4	5,1	7,9	4,0	4,0	5,9
Beste batzuk	0,2	0,2	0,5	0,7	0,9	0,4
Multimodala	1,8	1,2	3,2	0,6	1,3	1,7


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. Urtea

B.2.1.1 Ez-motordunak

EAEko eguneroko joan-etorrien % 46,9 (3.047.620) garraiobide ez-motordunen bidez egiten dira. Joan-etorri horietako gehienak oinez egiten dira (% 95,8), eta bizikletaz, berriz, % 4,2.

B.2.1.1.1 Oinez

EAEn, egunero, oinez 2.919.697 joan-etorri egiten dira, izan ere, euskal biztanleriak bere mugikortasun beharrak asetzeko gehien erabiltzen duen garraiatzeko modua da (% 44,9). Aisia da joan-etorri mota horien sortzaile nagusia: % 35,9. Mugikortasun okupazionalak joan-etorrien % 23,0 baino ez ditu sortzen (lana eta ikasketak, % 11,3 eta % 11,7, hurrenez hurren). Horrelako arrazoi horiek sortzen dute EAEn joan-etorri gehien, baina joan-etorri okupazionalak oinez egindako desplazamenduetan dute tasarik txikiena. Txosten honetan aztertuko diren gainerako moduetan, lanak eta/edo ikasketak eragindako joan-etorrien baturak desplazamenduen erdia baino gehiago biltzen ditu.

Irudia 15. Oinez egindako joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Lehen esan bezala, oinez egiten diren ia joan-etorri guztiak udalerri barrukoak dira (% 95,5); eskualde barrukoak, berriz, % 4.

Taula 15. Oinez egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera


Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barnekoa	2.789.658	95,5
Eskualde barnekoa	117.289	4,0
Lurralde barnekoa	4.759	0,2
Lurralde artekoa	6.116	0,2
Kanpokoak	1.876	0,1
GUZTIRA	2.919.697	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.1.1.2 Bizikleta

Egunero 127.923 joan-etorri egiten dira bizikletaz EAEn, hau da, guztizkoaren % 2,0. Bizikletak bigarren mailako garraiobidea izaten jarraitzen duen arren, motozikletak baino bi aldiz pisu handiagoa du erabilera-mailari dagokionez.

Bizikletaz egiten diren joan-etorri gehienak (% 45,0) lana dela-eta egiten dira, ikasketetatik oso urrun; izan ere, ikasketek joan-etorrien % 15,8 eragiten dituzte. Bizikleta bidezko joan-etorriak sortzen dituen bigarren arrazoia aisia da, guztizkoaren % 22,2rekin.

Irudia 16. Bizikletaz egindako joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Oinez egiten diren joan-etorriekin gertatzen den bezala, udalerri barruko joan-etorriak dira nagusi, egunero bizikletaz egiten diren desplazamendu guztien % 88,8 baitira (113.590 eta 127.923, hurrenez hurren). Oinez egindako joan-etorrietan ez bezala, eskualde barruko eremua % 7,4ra igotzen da, eta lurralde barrukoa % 3,0ra, garraiobide horrek distantzia handiagoak egiteko aukera ematen duelako.

Taula 16. Bizikletaz egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barrukoa	113.590	88,8
Eskualde barrukoa	9.445	7,4
Lurralde barrukoa	3.815	3,0
Lurralde artekoa	561	0,4
Kanpokoa	513	0,4
GUZTIRA	127.923	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.1.2 Garraiobide kolektibo motordunak


Garraiobide motordunei dagokienez, beharrezkoa da garraiobide kolektiboak eta banakakoak bereiztea.

Egunero, euskal herritarrek 3.315.313 joan-etorri egiten dituzte modu motordunetan, hau da, guztizkoaren % 51,0. Garraiobide motordunekin egindako joan-etorri gehienak banakako garraiobideekin egiten dira (autoa eta motozikleta), eta horiek, oro har, motordun joan-etorrien guztien % 74,5 dira.

Garraiobide kolektibotzat hartzen dira errepide bidezko zerbitzu erregular eta zerbitzu pribatu guztiak (autobusa) eta tren zerbitzu erregularrak. Itsasontzia, edizio honetan, beste garraiobide batzuen kategorian sartu da, bere erabilera murrizta baita

EAEn 846.272 joan-etorri egiten dira egunero errepide edo trenbide bidezko garraiobide kolektiboak erabiliz, hau da, motordun joan-etorri guztien % 25,5. Lana da joan-etorri horiek eragiten dituen arrazoi nagusia, % 35,0ekin. Bigarren mailan ikasketengatik egindako joan-etorriak daude (% 26,7), eta horrek esan nahi du okupazioaren ondorioz egindako joan-etorriak modu kolektiboan egindakoen % 61,7 direla.

Irudia 17. Garraiobide kolektiboetan egindako joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Garraiobide kolektiboen bidez egindako joan-etorrien tipologiari dagokionez, erdiak udalerri barrukoak dira (% 50,3), eta eskualde barrukoak, berriz, % 37,8. Lurralde Historiko beraren barruan egindako joan-etorriak % 9,0 dira, eta lurralde artekoak % 2,8.

Taula 17. Garraiobide kolektiboetan egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerrri barrukoa	425.315	50,3
Eskualde barrukoa	319.574	37,8
Lurralde barrukoa	76.357	9,0
Lurralde artekoa	23.529	2,8
Kanpoko	1.498	0,2
GUZTIRA	846.272	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea


B.2.1.2.1 Errepidea

Errepideko garraio kolektibo gisa zenbatu diren joan-etorriak hiri-autobusez, hiriarteko autobusez eta autobus-zerbitzu pribatuez (gehienak enpresek eta ikastetxeek eskaintzen dituzte) egin direnak dira.

Egunero 464.908 joan-etorri egiten dira EAEn garraiobide horien bidez. Joan-etorrien % 80,0 autobus erregularretan egiten dira, hiri-autobusetan zein hiriartekoetan.

Mugikortasun okupazionalak hiru garraiobide horiekin egindako desplazamenduen % 62,2 eragiten du. Kudeaketak, 2016an guztizkoaren % 20,7 ziren, eta 2021ean, pandemiaren ondorioz, % 12,3ra murriztu dira.

Irudia 18. Errepide bidezko garraio kolektiboetan egindako joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Errepide bidezko garraiobide kolektiboetan egiten diren joan-etorriak, gehienbat, udalerri barrukoak dira (% 60,2), eta, neurri txikiagoan, eskualde barrukoak (% 27,5). Kanpoko joan-etorriak % 0,3 baino ez dira.

Taula 18. Errepide bidezko garraio kolektiboetan egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barrukoa	279.974	60,2
Eskualde barrukoa	127.927	27,5
Lurralde barrukoa	38.647	8,3
Lurralde artekoa	16.862	3,6
Kanpoko	1.498	0,3
GUZTIRA	464.908	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Garrantzitsua da autobus-linea erregularren erabiltzaileek erabiltzen duten txartel mota aztertzea: bai hiri barruko autobusetan, bai hiriarteko autobusetan. Hiri barruko autobusetan erabilitako txartel motaren banaketaren eta hiriartekoen portzentajezko banaketaren artean alde nabarmenak dauden arren, bi kasuetan txanpon-txartelen eta hobaridun tituluen erabilera nabarmentzen da: bi kasuetan % 93tik gora daude.

Taula 19. Txartel mota desberdinen erabilera errepide bidezko garraiobide kolektiboaren arabera

Txartel mota	Hiri-autobusa		Hiriarteko autobusa	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Txanpon-txartela (Barik, Mugi, Bat)	170.573	77,0	126.798	84,3
Tarifa bereziak (gazteak, erretirodunak)	44.285	20,0	14.508	9,6
Aldi baterako txartela	1.901	0,9	2.874	1,9
Txartel arrunta	1.900	0,9	1.908	1,3
Hainbat bidaiatarako txartela	473	0,2	0	0,0
Beste bat	2.501	1,1	4.356	2,9
GUZTIRA	221.634	100	150.444	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Hiru Lurralde Historikoetan nagusi da aurreordainketako edo antzeko txartelen erabilera (tarifa berezikoak edo aldi baterakoak), nahiz eta mota bakoitzak pisu desberdina izan lurralde bakoitzean.

Taula 20. Txartel mota desberdinen erabilera errepideko garraio kolektiboan Lurralde Historiko bakoitzean (%)

Txartel mota	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Txanpon-txartela (Barik, Mugi, Bat)	79,2	83,3	76,4	79,9
Tarifa bereziak (gazteak, erretirodunak)	12,5	12,8	20,1	15,8
Aldi baterako txartela	3,0	1,5	0,5	1,3
Txartel arrunta	0,8	0,9	1,2	1,0
Hainbat bidaiatarako txartela	0,0	0,0	0,3	0,1
Beste bat	4,5	1,4	1,5	1,8
GUZTIRA	100	100	100	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Errepide bidezko garraio publikoan egiten diren hiru hiriburuetakoko barne-joan-etorrietan, ordaintzeko modurik erabiliena txanpon-txartela da (bai lurraldeko beste garraibide batzuekin integratuta, bai hiriko autobus-zerbitzuetarako soilik). Bilbon dago ehuneko handiena (% 98,9); Donostian, berriz, % 97,1. Gasteizen ehuneko hori txikiagoa da, % 92,6koa baita.

Taula 21. Txartel mota desberdinen erabilera, EAEko hiriburuetan errepide bidezko garraio kolektiboan egindako barne joan-etorrietan

Txartel mota	Vitoria - Gasteiz		Bilbo		Donostia-San Sebastián	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Txanpon-txartela (Barik, Mugi, Bat)	33.682	79,3	65.983	79,6	57.242	73,9
Tarifa bereziak (gazteak, erretirodunak)	5.614	13,2	16.038	19,3	17.927	23,2
Aldi baterako txartela	1.403	3,3	0	0,0	498	0,6
Txartel arrunta	0	0,0	904	1,1	996	1,3
Hainbat bidaiatarako txartela	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Beste bat	1.754	4,1	0	0,0	747	1,0
GUZTIRA	42.454	100	82.925	100	77.411	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea


B.2.1.2.2 Trena

Atal honetan, herritarrek hurrengo garraiobide hauetan egindako joan-etorriak biltzen dira: Euskotren, Renfe, Feve, tranbia eta Bilboko metroa.

EAEEn bizi diren pertsonen 381.364 joan-etorri egiten dituzte egunero trenez. Kopuru hori garraiobide kolektiboetan egiten diren bidaia guztien % 45,1 da. Hiru Lurralde Historikoetan, zerbitzuen eskaintzak berak asko baldintzatzen du trenaren erabilera; izan ere, Bizkaian bizi diren pertsonen joan-etorrien % 77,1 egiten dituzte garraiobide horren bidez, Gipuzkoan bizi direnek % 14,9 eta Araban bizi direnek % 7,4.

Mugikortasun okupazionala trenez egindako joan-etorrien % 61,2 da (% 43,4 lanagatik eta % 17,7 ikasketengatik).

Irudia 19. Trenez egindako joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Trenen egiten diren joan-etorrien tipologia dagokionez, eskualde barrukoak (% 50,3) eta udalerri barrukoak (% 38,1) dira garrantzitsuenak, aldiriko zerbitzuen, metroaren, tranbiaren eta Euskotrenen 3. linearen eskaintza dela eta.

Taula 22. Trenez egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barrukoa	145.341	38,1
Eskualde barrukoa	191.646	50,3
Lurralde barrukoa	37.709	9,9
Lurralde artekoa	6.667	1,7
Kanpokoa	0	0,0
GUZTIRA	381.364	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Garraio-tituluen aukeren erabilera sistema integratuetan parte hartzeak edo ez hartzeak zehazten du, titulu horiek baitira kasu guztietan gehien erabiltzen direnak. Renfen, titulu integratuek % 66,1eko pisua dute, aldi baterako abonuen alde (% 30,2). Antzekoa egoera ematen da Bilboko Metroaren kasuan; izan ere, aldi baterako abonuek aukera erakargarria dira erabiltzaileentzat, kuotaren % 20,4rekin, titulu integratuen (aurreordainketa eta tarifa bereziak) kaltetan, % 65,7rekin.

Taula 23. Txartel mota desberdinen erabilera trenean (%)

Txartel mota	Euskotren	Renfe	Feve	Metro	Tranbia
Txanpon-txartela (Barik, Mugi, Bat)	73,8	59,7	66,8	48,7	75,3
Tarifa bereziak (gazteak, erretirodunak)	12,1	6,4	8,8	17,0	18,5
Aldi baterako txartela	7,4	30,2	9,3	20,4	4,7
Txartel arrunta	1,3	0,7	15,1	0,2	0,0
Hainbat bidaiatarako txartela	0,5	0,0	0,0	11,5	0,0
Beste bat	4,9	3,0	0,0	2,3	1,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Arestian aipatutako egoera bera errepikatzen da hiru Lurralde Historikoetan eta dagozkien hiriburuetan erabilitako tituluen azterketan.

Taula 24. Txartel mota desberdinen erabilera trenean Lurralde Historiko bakoitzean (%)

Txartel mota	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Txanpon-txartela (Barik, Mugi, Bat)	71,4	49,4	85,1	56,4
Tarifa bereziak (gazteak, erretirodunak)	18,4	16,7	5,8	15,2
Aldi baterako txartela	10,2	20,9	5,2	17,7
Txartel arrunta	0,0	0,5	0,9	0,5
Hainbat bidaiatarako txartela	0,0	9,6	0,0	7,5
Beste bat	0,0	2,9	3,0	2,7
GUZTIRA	100	100	100	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 25. Txartel mota desberdinen erabilera trenean hiru hiriburuetan (%)


Txartel mota	Vitoria-Gasteiz	Bilbo	Donostia-San Sebastián
Txanpon-txartela (Barik, Mugi, Bat)	72,9	51,6	84,2
Tarifa bereziak (gazteak, erretirodunak)	20,8	23,0	6,6
Aldi baterako txartela	6,3	16,2	6,2
Txartel arrunta	0,0	0,0	0,0
Hainbat bidaiatarako txartela	0,0	6,8	0,0
Beste bat	0,0	2,4	3,0
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.1.3 Banakakoak motordunak

Banakako garraiobide motordunek autoz (bai gidari gisa, bai bidaiari gisa), taxiz eta motozikletaz egindako joan-etorriak barne hartzen dituzte. Autoa da, taxia barne, garraiobide nagusia (% 97,8) banakako garraio motordun guztien artean; motorra, berriz, % 2,2 da. Garraiobide horiek EAEko desplazamenduen % 38,0 biltzen dute, eta gehien erabiltzen direnak dira oinezko mugikortasunaren ondoren.

Egunero, EAEn, 2.469.040 joan-etorri egiten dira banakako garraiobideak erabiliz. Mugikortasun okupazionalak horien % 55,1 eragiten du, eta bereziki garrantzitsua da lanagatiko arrazoiak (% 48,6); ikasketak, berriz, % 6,5. Gainera, kudeaketak dira garraiobide horiekin lotura handiena duten motibazioetako bat (% 20,5).

Irudia 20. Banakako garraiobideetan egindako joan-etorrien banaketa, arrazoiaren arabera

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Udalerri barruko eta eskualde barruko joan-etorriek lekualdatzeen % 70,2 hartzen dute; lurralde barrukoek eta lurralde artekoek, berriz, joan-etorri guztien % 26,9.

Taula 26. Banakako garraibideetan egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barrukoa	1.029.537	41,7
Eskualde barrukoa	703.685	28,5
Lurralde barrukoa	406.595	16,5
Lurralde artekoa	258.001	10,4
Kanpoko	71.223	2,9
GUZTIRA	2.469.040	100


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.1.3.1 Autoa

Atal honetan autoz (gidari edo bidaiari gisa) eta taxiz egindako joan-etorriak biltzen dira.

EAEn 2.415.147 mugimendu egiten dira egunero autoz, guztizkoaren % 37,2. Lana da joan-etorri horien eragile nagusia, egiten diren bidaien % 48,3 eragiten baitu. Hurrengo arrazoiak, kudeaketak, joan-etorrien % 20,8 eragiten du, eta, aisialdiak, % 9,3.

Irudia 21. Autoz egindako joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. Urtea

Joan-etorriaren tipologiari dagokionez, nahiz eta automobilaren erabilera udal eta eskualde barruko mugimenduekin lotuta egon, hau da, ingurune hurbilenekin, horixe da atal honetan sakabanatze handiena erakusten duen garraiobidea.

Taula 27. Autoz egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barrukoa	992.259	41,1
Eskualde barrukoa	689.717	28,6
Lurralde barrukoa	404.509	16,7
Lurralde artekoa	258.001	10,7
Kanpoko	70.661	2,9
GUZTIRA	2.415.147	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. Urtea

Lurralde Historikoen arabera aztertuz gero, ikusten da Bizkaia dela lurralde nagusia, 1.133.790 joan-etorri baititu jatorri gisa eta 1.141.617 helmugako probintzia gisa. Ondoren Gipuzkoa dago, 820.911 eta 811.591 joan-etorrirekin, hurrenez hurren, eta Arabak 427.261 baino ez ditu sortzen jatorri gisa eta 424.462 helmuga gisa.

Taula 28. Automobilez egindako joan-etorrien jatorri-helmuga matrizea

Jatorri probintzia	Helmuga probintzia				
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Kanpoko	GUZTIRA
Araba	350.585	43.337	21.570	11.769	427.261
Bizkaia	40.643	1.015.087	60.854	17.207	1.133.790
Gipuzkoa	23.450	68.147	720.813	8.501	820.911
Kanpoko	9.785	15.046	8.354	0	33.184
GUZTIRA	424.462	1.141.617	811.591	37.476	2.415.147

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. Urtea

Hala ere, hiriburuetakako automobil-mugikortasuna aztertzean, ikusten da Gasteizek eragiten dituela joan-etorri gehien.

Taula 29. Autoz egindako joan-etorrien banaketa hiru hiriburuetan

Hiriburua	Jatorri gisa	Helmuga gisa	Udalerri barrukoa
Vitoria - Gasteiz	327.273	322.057	260.521
Bilbo	209.101	208.091	100.124
Donostia - San Sebastián	205.726	208.173	127.302

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. Urtea


B.2.1.3.1 Motozikleta

Motozikleta barneratze-kuota txikiena duen garraiobideetako bat izaten jarraitzen du.

Egunero 52.893 joan-etorri egiten dira EAEn garraiobide horrekin, hau da, guztizkoaren % 0,8.

Lanak garraiobide horren bidez egindako joan-etorrien % 59,2 eragiten ditu; aisia dator ondoren (% 15,3) eta ikasketak hirugarren (% 7,1).

Irudia 22. Motozikletaz egindako joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Motozikletaz egiten diren ia joan-etorri guztiak udalerri edo eskualde barrukoak dira, eta bidaia guztien % 95,1 hartzen dute.

Taula 30. Motozikletaz egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barrukoa	37.278	69,2
Eskualde barrukoa	13.968	25,9
Lurralde barrukoa	2.085	3,9
Lurralde artekoa	0	0,0
Kanpoko	562	1,0
GUZTIRA	53.893	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Lurralde Historikoen arabera aztertuz gero, ikusten da Gipuzkoa dela lurralde nagusia, 36.997 joan-etorri baititu jatorri gisa eta 36.871 helmugako probintzia gisa. Ondoren, Bizkaia dator, probintzia barruko 12.195 joan-etorrirekin, eta, ondoren, Araba, 4.484 joan-etorrirekin. Joan-etorri horiek ere lurralde barrukoak baino ez dira.

Taula 31. Motozikletaz egindako joan-etorrien jatorri-helmuga matrizea

Jatorri probintzia	Helmuga probintzia				
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Kanpoko	GUZTIRA
Araba	4.484	0	0	0	4.484
Bizkaia	0	12.195	0	0	12.195
Gipuzkoa	0	0	36.653	344	36.997
Kanpoko	0	0	218	0	218
GUZTIRA	4.484	12.195	36.871	344	53.893

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Hala ere, hiriburuetako motozikleta bidezko mugikortasuna aztertzean ikus daitekeenez, Gipuzkoako hiriburuak sortzen ditu joan-etorri gehien.

Taula 32. Motozikletaz egindako joan-etorrien banaketa hiru hiriburuetan

Hiriburua	Jatorri gisa	Helmuga gisa	Udalerri barrukoa
Vitoria - Gasteiz	4.233	4.233	4.213
Bilbo	6.851	6.852	5.763
Donostia - San Sebastián	23.568	23.151	21.464


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.2 Joan-etorrien banaketa ARRAZOIEN arabera

Atal honetan, EAEn joan-etorriak eragiten dituzten arrazoiak aztertzen dira, inkestetan jasotako erantzunetan oinarrituta.


EAEn mugikortasuna eragiten duen arrazoi nagusia lana da, guztizkoaren % 29,9. Aisia da bigarren arrazoa garrantziari dagokionez, % 22,0. EAEko biztanleek batez besteko lanegun batean egiten dituzten desplazamenduen % 41,9 mugikortasun okupazionalari dagozkio (lana eta ikasketak).

Irudia 23. EAEko joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 24. Joan-etorrien banaketa jatorri eskualdearen eta arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 25. Joan-etorrien banaketa helmuga eskualdearen eta arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.2.1 Lana


Atal honetan, arrazoi hauengatik egindako joan-etorriak biltzen dira: laneko gaiak eta ohiko lana.

EAEn bizi diren pertsonak lan arrazoiengatik egunero 1.940.806 joan-etorri egiten dituzte (% 29,9). Hiru Lurralde Historikoetako bakoitzean lanak arrazoi gisa duen garrantzia antzekoa da, baina zertxobait handiagoa Araban (% 33,2); Bizkaian, berriz, lanak joan-etorrien % 27,5 eragiten du eta Gipuzkoan % 32,2.

Lan arrazoiengatik egiten diren joan-etorrietarako erabiltzen den garraiobideari dagokionez, joan-etorrien % 60,1 autoz egiten dira; eta hori da arrazoi honetako ehuneko handiena.

Joan-etorrien % 17,1 oinez egiten dira, eta errepide bidezko eta trenbide bidezko garraiobide kolektiboak % 15,3 dira.

Irudia 26. Lan arrazoiengatik egindako joan-etorrien banaketa garraiobidearen arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Lanak eragindako joan-etorri gehienak udalerri eta eskualde barruan burutzen dira, % 73,0 batera. Udalerri barruko joan-etorriek dute azterlan honetan aztertutako arrazoi guztietan ehunekorik baxuena, eta, gainera, lurralde eremuaren arabera lan-arrazoiengatik joan-etorrien banaketak aurkezten du arrazoi guztien sakabanatze handiena.

Taula 33. Lan arrazoiengatik egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barrukoa	884.588	45,6
Eskualde barrukoa	532.566	27,4
Lurralde barrukoa	295.918	15,2
Lurralde artekoa	190.980	9,8
Kanpokoa	36.754	1,9
GUZTIRA	1.940.806	100


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.2.2 Aisia

Aisian kultura eta kirola ere sartzen dira.

Aisialdia da EAEn joan-etorriak eragiten dituen bigarren arrazoa, 1.431.912 guztira (lanegun bateko bidaia guztien % 22,0).

Joan-etorri horietako gehienak oinez egiten dira (guztizkoaren % 73,3); ondoren, autoz (% 15,6) eta, azkenik, garraio publikoz (% 7,0). Nabarmenezkoa da arrazoi honek duela oinez egindako joan-etorrien ehunekorik handiena.

Irudia 27. Aisialdi arrazoiengatik egindako joan-etorrien banaketa garraiobidearen arabera

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Aisialdi arrazoiengatik egiten diren joan-etorriek udal-izaera argia dute, izan ere, horien % 82,2 udalerri barruan egiten dira; eskualde-ingurunean, berriz, % 12,7.

Taula 34. Aisialdi arrazoiengatik egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barrukoa	1.177.138	82,2
Eskualde barrukoa	182.189	12,7
Lurralde barrukoa	36.756	2,6
Lurralde artekoa	21.144	1,5
Kanpoko	14.685	1,0
GUZTIRA	1.431.912	100


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Aisiak Lurralde Historiko bakoitzean hartzen duen garrantziari dagokionez, ez da alde esanguratsurik antzematen, hiru kasuetan % 21 ingurukoa baita: Araban % 20,0, Bizkaian % 22,4 eta Gipuzkoan pixka bat handiagoa, % 22,5.

B.2.2.3 Kudeaketak

Kudeaketen barruan honako arrazoi hauek daude: etxeko edo familia-kudeaketak, kudeaketa pertsonalak, mediku-kudeaketak eta laguntza.

EAEEn 1.129.899 joan-etorri egiten dira egunero kudeaketak egiteko, guztizkoaren % 17,4. Joan-etorri horiek egiteko erabiltzen den garraiobideari dagokionez, autoak eskuratzen du garrantzia (% 44,4), oinez egindako joan-etorrien aurretik (% 42,5). Horrek aldaketa dakar herritarren jokabidean, eta horrek pandemiaren osteko egoerari erantzun diezaioke.

Irudia 28. Kudeaketa arrazoiengatik egindako joan-etorrien banaketa garraiobidearen arabera

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Joan-etorri gehienak udalerri barrukoak dira (% 73,9); eskualde barruko eta lurralde barruko joan-etorriek, berriz, guztizkoaren % 22,0 biltzen dute. Hiru lurralde-eremu horiek kudeaketek eragindako mugimendu guztien % 95,9 biltzen dute.

Taula 35. Kudeaketa arrazoiengatik egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barrukoa	834.681	73,9
Eskualde barrukoa	173.119	15,3
Lurralde barrukoa	75.427	6,7
Lurralde artekoa	40.683	3,6
Kanpoko	5.989	0,5
GUZTIRA	1.129.899	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea


Araba nabarmentzen da, kudeaketak egiteko joan-etorri guztien % 19,4rekin; Bizkaian, berriz, joan-etorri guztien % 17,8, eta, azkenik, Gipuzkoan % 15,7ra jaisten da.

B.2.2.4 Ikasketak

Atal honetan, prestakuntza eta ikasketa helburu duten EAEko biztanleek egindako joan-etorriak jasotzen dira.

EAEEn, egunean 780.062 joan-etorri egiten dira ikasketa arrazoiengatik, hau da, guztizkoaren % 12,0. Joan-etorri horiek egiteko erabiltzen den garraio moduari dagokionez, gehienak oinez egiten dira (% 43,8); ondoren, autobusa (% 20,3) eta autoa (% 20,1) daude. Arrazoi horrek biltzen du garraio kolektiboaren (% 29,0) eta, bereziki, autobus-zerbitzu pribatuaren (% 9,6) barneratze-kuota handiena. Garraio publikoaren erabilera handiago horrek nagusi den kolektiboaren ezaugarriei erantzuten die: adingabeak eta ibilgailu pribaturako sarbide-maila txikiagoa dutenak.

Irudia 29. Ikasketa arrazoiengatik egindako joan-etorrien banaketa garraiobidearen arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Joan-etorrien % 72,1 udalerrri barrukoak dira eta, eskualde barrukoarekin batera, ikasketek eragindako bidaia guztien % 89,4 dira.

Taula 36. Ikasketa arrazoiengatik egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerrri barrukoa	562.138	72,1
Eskualde barrukoa	134.869	17,3
Lurralde barrukoa	56.800	7,3
Lurralde artekoa	21.014	2,7
Kanpokoa	5.241	0,7
GUZTIRA	780.062	100


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Ikasketengatiko joan-etorriek Lurralde Historiko bakoitzean duten garrantziari dagokionez, Araban % 11,6 dira, Bizkaian pixka bat gehiago (% 12,8) eta Gipuzkoan % 10,9.

B.2.2.5 Erosketak

Erosketen barruan honako helburu hauekin egindako joan-etorriak sartzen dira: erosketa pertsonalak eta etxeke edo familia-erosketak.

Egunero 742.051 joan-etorri egiten dira EAEn erosketaren bat egiteko (% 11,4). Joan-etorri horiek gehienbat oinez egiten dira (% 62,5). Bigarrenik, autoa erabiltzen da (% 27,9), eta, ondoren, garraio publikoa (% 8,0).

Irudia 30. Erosketa arrazoiengatik egindako joan-etorrien banaketa garraiobidearen arabera

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Erosketak egiteko joan-etorri gehienak udalerrian bertan burutzen dira (% 81,0); eskualde barruan, berriz, % 12,6 egiten dira.

Taula 37. Erosketa arrazoiengatik egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	Joan-etorriak	%
Udalerri barrukoa	601.161	81,0
Eskualde barrukoa	93.839	12,6
Lurralde barrukoa	23.610	3,2
Lurralde artekoa	21.460	2,9
Kanpoko	1.981	0,3
GUZTIRA	742.051	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea


Araban erosketak egiteko joan-etorriak % 9,3 dira, eta beste bi lurraldeetan baino pisu txikiagoa du: Bizkaian % 12,0 eta Gipuzkoan % 11,5.

B.2.3 Joan-etorrien banaketa aldagai SOZIOEKONOMIKOEN arabera

B.2.3.1 Mugikortasunaren azterketa sexuaren arabera


Atal honek EAEko pertsonen sexuaren arabera gertatzen diren mugikortasun-jarraibideak aztertzen ditu. Bildutako datuen arabera, esan daiteke gizonen mugikortasuna emakumeena baino zertxobait handiagoa dela.

Irudia 31. Biztanleko joan-etorriak sexuaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Emakumeen mugikortasun-eredua jasangarriagoa dela esan daiteke, garraio kolektiboan eta oinez gehiago ibiltzen direlako.

Irudia 32. Joan-etorrien banaketa sexuaren eta garraiobidearen arabera

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Gizonen zein emakumeen kasuan, oinez egindako joan-etorriak dira nagusi, % 39,0 eta % 50,8, hurrenez hurren. Alderik nabarmenena automobilaren erabileran antzematen da, gizonek erabiltzen baitute gehien. Garraiobide kolektiboen erabilerari dagokionez ere aldeak daude; emakumeek gehiago erabiltzen dituzte bai errepide bidezko garraioak, bai trenbide bidezkoak. Gizonek gehiago erabiltzen dituzte motozikleta eta bizikleta.


Taula 38. Joan-etorrien banaketa garraiobidearen eta sexuaren arabera (%)

Garraiobidea	Gizonak	Emakumeak	EAE
Oinez	39,0	50,8	44,9
Bizikleta	2,6	1,4	2,0
Autoa	44,6	29,8	37,2
Motozikleta	1,3	0,3	0,8
Autobus-zerbitzu pribatua	1,5	1,3	1,4
Errepideko garraio publikoa	4,0	7,4	5,7
Trena	4,9	6,8	5,9
Beste batzuk	0,5	0,3	0,4
Multimodala	1,5	1,9	1,7
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Bidaia eragiten dituzten arrazoiaren arabera, ondorioztatzen da gizonen artean lana askoz ere pisu handiagoko bektorea dela joan-etorrien guztizkoan emakumeen kasuan baino (% 32,0 eta % 27,7, hurrenez hurren). Biztanleriaren bi sektoreetan, aisia da joan-etorrien bigarren eragilea, ia pisu berarekin (% 23,3 gizonen kasuan eta % 20,8 emakumeen kasuan). Laguntzaren kasuan, ehuneko 3,4 puntuko aldea ikus daiteke, eta emakumeentzat arrazoi garrantzitsuagoa da eragiten dituen bidaia-kopuruari dagokionez (% 11,7 emakumeen kasuan eta % 8,3 gizonen kasuan). Fenomeno bera gertatzen da etxeko eta familia-erosketekin: % 11,0 emakumeen kasuan, eta % 7,3 gizonen joan-etorrien kasuan.


Irudia 33. Sexuen arabera joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Era berean, joan-etorrien tipologiari dagokionez, gizonen eta emakumeen arteko mugikortasun-eredu berezi bat antzematen da. Gizonen emakumeek baino distantzia handiagoko joan-etorriak egiten dituzte: lurralde arteko joan-etorriak eta lurralde barrukoak ehuneko 2,6 puntu handiagoak dira gizonen kasuan emakumeen kasuan baino. Pisu diferentzia hori areagotu egiten da eskualde barruko joan-etorrien kasuan; izan ere, gizonen kasuan joan-etorri guztien % 19,9 dira eta emakumeen kasuan % 16,9. Hala ere, udalerrirako barruko joan-etorriak aztertzen ikusten da emakumeen mugikortasunarekin lotura handiagoa dutela gizonenarekin baino: emakumeen kasuan, joan-etorri guztien % 72,1 dira eta, gizonen kasuan, berriz, % 63,1.

Irudia 34. Joan-etorrien banaketa sexuaren eta lurralde eremuaren arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.3.2 Mugikortasunaren azterketa garraibide motordunetarako sarbidearen arabera

EAEEn, herritarrek sarbide handia dute garraibide motordunetara. Garraibide motordunetarako sarbidea da familia-unitatean ibilgailu bat fisikoki eskuragarri egotea, dela etxeko kideren baten jabetzagatik, dela beste erabilera-baimen formatu batean (alokairua, leasinga, erabilera pertsonalerako aukera ematen duen enpresa-autoa, etab.). Pertsonen % 84,0k ibilgailu motordunetarako sarbidea du familia-unitatearen barruan.


Irudia 35. Biztanleriaren banaketa familia-unitatearen barruan ibilgailu motordunak izatearen arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Motordun ibilgailuak erabiltzeko aukera duten pertsonen mugikortasuna aukera hori ez dutenena baino nabarmen handiagoa da. Hori biztanle bakoitzak egindako joan-etorri kopuruan islatzen da: 3,12 joan-etorri egiten dira egunero ibilgailu motordunerako sarbidea duten pertsonen kasuan, eta 3,01 joan-etorri aukerari hori ez dutenen kasuan.

Irudia 36. Biztanle bakoitzeko joan-etorri kopurua familia-unitatearen barruan ibilgailu motorduna izatearen arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Jakina, garraiobide motordunetarako sarbide-maila handiagoa izateak esan nahi du garraiobide motordunak gehiago erabiltzen direla. Horrela, familia-unitatean ibilgailu motordunik ez duten pertsonak modu jasangarrien bidez mugitzen dira gehienbat (oinez eta bizikletaz, desplazamendu guztien % 72,3), eta motordunen erabilera % 25,1era murrizten da. Aldiz, ehuneko hori % 55,7ra igotzen da etxean ibilgailu motorduna duten pertsonen kasuan.

Irudia 37. Garraiobideen araberrako joan-etorrien banaketa familia-unitatearen barruan ibilgailu motorduna izatearen arabera


Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunaren azterketa 2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Pertsonak ibilgailu motordunetarako sarbide handiagoa izateak ere badu eragina mugikortasuna gertatzen den lurralde-eremuan. Sarbide hori ez duten pertsonen mugikortasunaren ezaugarri nagusia udalerri barruko bidaiak egitea da (% 84,9). Lurralde arteko bidaiak % 0,8ko pisua dute eta lurralde barrukoak % 2,8koa. Pisu horiek, etxean ibilgailu motordun bat duten pertsonen kasuan, izugarri handitzen dira: joan-etorrien % 5,5 lurralde artekoak dira, eta % 8,9 lurralde barrukoak. Gainera, udalerri barruko bidaiak, oraindik ere nagusi diren arren, guztizkoaren % 64,5 baino ez dira.

Irudia 38. Joan-etorrien tipologiaren banaketa, familia-unitatearen barruan ibilgailu motorduna izatearen arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Beraz, espero zitekeen bezala, etxean garraiobide motordunik ez duten pertsonak gutxiago mugitzen dira, eta mugitzen direnean, garraiobide jasangarriagoetan eta ingurune txikiagoetan egiten dute.

B.2.3.3 Mugikortasunaren azterketa familia-tipologiaren arabera

Atal honetan, azterlanean aintzat hartutako familia-unitate mota guztien mugikortasun-ereduak ezaugarritzen dira.

Mugikortasun ez-motordunak garrantzi berezia du seme-alabarik gabeko bikoteen eta pertsona bakarreko familien kasuan. Seme-alabak dituzten bikoteen kasuan nabarmentzen da gehien autoaren erabilera (% 43,7).

Irudia 39. Joan-etorrien banaketa garraiobidearen eta familia-tipologiaren arabera

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea


Taula 39. Joan-etorrien banaketa garraiobidearen eta familia-tipologiaren arabera

Garraiobidea	Pertsona bakarrekoa	Senar-emazte edo bikotekideak seme-alabekin	Senar-emazte edo bikotekideak seme-alabarik gabe	Gurasobakarra	Beste tipologia batzuk	GUZTIRA
Oinez	56,0	38,3	55,0	44,1	45,0	44,9
Bizikleta	1,6	2,4	1,5	1,3	2,1	2,0
Ez-motordunak	57,6	40,6	56,5	45,4	47,1	46,9
Autoa	27,3	43,7	29,8	34,6	32,8	37,2
Motozikleta	1,3	0,8	0,9	0,6	0,5	0,8
Errepideko garraio publikoa	6,0	5,0	5,3	7,7	8,6	5,7
Autobus-zerbitzu pribatua	0,4	2,2	0,1	1,7	1,0	1,4
Trena	5,8	5,5	5,2	7,8	7,7	5,9
Motordunak	40,7	57,2	41,3	52,5	50,6	51,0
Beste batzuk	0,6	0,4	0,4	0,2	0,7	0,4
Multimodala	1,2	1,8	1,7	1,9	1,6	1,7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Joan-etorriak eragiten dituzten arrazoiei dagokienez, heterogeneotasuna dago familia-tipologiaren arabera. Lana da sortzaile nagusia seme-alabak dituzten senar-emazteen edo bikoteen kasuan (% 34,7); aldiz, seme-alabarik ez duten senar-emazte edo bikoteen kasuan, aisia da joan-etorriak egiteko motibazio nagusia (% 33,8 eta % 21,8, hurrenez hurren).

Irudia 40. Joan-etorrien banaketa arrazoiaren eta familia-tipologiaren arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.4 Lurralde-azterketa

EAEEn, herritarrek egiten dituzten ia joan-etorri guztiak autonomia-erkidegoan bertan egiten dira. Guztira 6.420.957 mugimendu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, hau da, horien jatorria eta helmuga Euskadiko lekuren batean kokatzen dira, eta sortutako joan-etorri guztien % 98,8 dira. 79.320 joan-etorri bakarrik (gainerako % 1,2) egiten dira kanpoaldearekin.


EAEEn egiten diren barne joan-etorrietatik, 4.395.581 joan-etorri sortzen diren udalerrian bertan amaitzen dira (guztizkoaren % 68,5) eta 1.194.478 eskualde bereko udalerrien arteko fluxuak dira (% 18,6). Eskualde desberdinetako udalerrien arteko joan-etorriak, baina Lurralde Historiko beraren barruan, 519.189 izan dira, hau da, % 8,1, eta Lurralde Historikoen artean 311.708 (% 4,9).

Irudia 41. EAEko joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 42. Joan-etorrien banaketa jatorri eskualdearen eta lurralde eremuaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 43. Joan-etorrien banaketa helmuga eskualdearen eta lurralde eremuaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Jarraian, jatorria eta helmuga Lurralde Historiko berean duten EAEko biztanleek egindako joan-etorriak aztertuko dira (hemen sartzen dira udalerri barruko, eskualde barruko eta lurralde barruko joan-etorriak). Egunero horrelako 6.109.248 mugimendu egiten dira, hau da, herritarrek egindako joan-etorri guztien % 94,0. Azterketa hori Lurralde Historiko mailan, eskualde mailan eta hiru hiriburuetakako bakoitzean egiten da, azterketa-elementua beti lurralde horietako bakoitzean egindako barne joan-etorriak izango dira.

Bizkaian eta Gipuzkoan, barne-desplazamenduen pisua oso antzekoa da: % 94,6 eta % 94,2, hurrenez hurren; Araban, berriz, % 91,4koa da.

Barne joan-etorriak eragiten dituzten arrazoiei dagokienez, hiru Lurralde Historikoetako eredua nahiko homogeneoa da. Lanak eta aisiak sortzen dituzte fluxu gehienak hiru kasuetan.

Taula 40. Barne joan-etorrien banaketa arrazoiaren eta Lurralde Historikoaren arabera

Arrazoaia	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Lana	277.536	30,4	886.628	26,2	548.907	30,4	1.713.072	28,0
Ikasketak	109.928	12,0	441.952	13,0	201.928	11,2	753.807	12,3
Kudeaketak	181.872	19,9	612.124	18,1	289.230	16,0	1.083.227	17,7
Erosketak	85.755	9,4	419.733	12,4	213.122	11,8	718.609	11,8
Aisia	197.092	21,6	777.170	22,9	421.820	23,3	1.396.083	22,9
Beste batzuk	60.624	6,6	251.914	7,4	131.912	7,3	444.451	7,3
GUZTIRA	912.808	100	3.389.521	100	1.806.919	100	6.109.249	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Barne joan-etorriak egiteko erabiltzen diren garraiobideak antzekoak dira hiru lurraldeetan, hurrengo bi garraio moduak nagusitzen direlarik: oinez eta automobila. Hala ere, horietako bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Bizkaian egiten da joan-etorri gehien oinez (% 51,5). Gipuzkoan erabiltzen da automobila gehien (% 39,9), ondoren Araban (% 38,4) eta azkenik Bizkaian (% 29,9). Bizikletak Araban du garrantzirik handiena, joan-etorrien % 6,7 bizikletak egiten baitira; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, bizikletaren erabilera txikia da (% 0,7 eta % 2,3, hurrenez hurren). Bizkaia duen tren-zerbitzuen eskaintza ona dela eta, Lurralde Historiko horretan erabiltzen da trena gehien (% 8,7); Araban eta Gipuzkoan, aldiz, % 2,8 eta % 3,1, hurrenez hurren.

Taula 41. Barne joan-etorrien banaketa garraiobidearen eta Lurralde Historikoaren arabera

Garraiobidea	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Oinez	406.338	44,5	1.746.567	51,5	758.800	42,0	2.911.705	47,7
Bizikleta	61.272	6,7	23.958	0,7	41.619	2,3	126.849	2,1
Automobila	350.585	38,4	1.015.087	29,9	720.813	39,9	2.086.486	34,2
Motozikleta	4.484	0,5	12.195	0,4	36.653	2,0	53.331	0,9
Autobus-zerbitzu pribatua	7.641	0,8	53.433	1,6	23.859	1,3	84.934	1,4
Errepideko garraio publikoa	44.871	4,9	169.296	5,0	147.448	8,2	361.615	5,9
Trena	25.358	2,8	293.741	8,7	55.597	3,1	374.697	6,1
Beste batzuk	6.461	0,7	13.324	0,4	6.480	0,4	26.265	0,4
Multimodala	5.797	0,6	61.920	1,8	15.650	0,9	83.367	1,4
GUZTIRA	912.808	100	3.389.521	100	1.806.919	100	6.109.249	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Garraio kolektiboaren erabilerari dagokionez, aldeak daude hiru Lurralde Historikoen artean. Araban eta Bizkaian, joan-etorrien % 4,9 eta % 5,0 autobusez egiten dira, hurrenez hurren; hau da, Gipuzkoan baino ehuneko 3 puntu gutxiago. Trenbidearen sartzeko-mailari dagokionez, Araban % 2,8koa da. Gipuzkoa ere EAEko batez bestekoaren (% 6,1) azpitik dago, % 3,1ekin. Bizkaian, ordea, trenbidearen erabilera % 8,7koa da.


Garraio publikoa bere osotasunean aztertuta, Araba dago atzean, kuotaren % 7,7rekin (70.229 joan-etorri egunero); Gipuzkoak eguneroko 203.045 joan-etorrirekin, % 11,2 lortzen du, eta, azkenik, Bizkaia, 463.038 joan-etorrirekin, garraio publikoaren erabilera-maila handiena duen lurraldea da, bai kopuru absolutuetan, bai sartzeko-kuotetan (% 13,7).

B.2.4.1 Araba

Araban, probintzia barruan bertan, guztira, 912.808 barne joan-etorri egiten dira egunero.

Joan-etorriak eragiten dituzten arrazoiei dagokionez, Araban lana da nagusi, bidaien % 30,4 laneko betebeharrak eragindakoak baitira, eta ondoren aisia dago, % 21,6rekin. Motibazio okupazionalak kontuan hartuz gero, % 42,4ra iristen da.

Irudia 44. Barne joan-etorrien banaketa Araban arrazoiaren arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Araban barneko joan-etorriak egiteko garraiobideen erabilerari dagokionez, oinezko modua da barneratze-kuota handiena duena (% 44,5), eta, bigarrena, automobila (% 38,4). Azkenik, adierazi behar da bizikleta hirugarren postuan dagoela (% 6,7), eta horrek berretsi egiten du Araba dela proportzionalki garraio hori gehien erabiltzen den lurraldea (batez ere, Gasteizko barne-mugimenduetan bizikleta erabiltzen delako). Arabako Lurralde Historikokoan gainerako garraiobideek ez dituzte, kasu batean ere, % 5etik gorako balioak gainditzen.

Irudia 45. Barneko joan-etorrien banaketa Araban garraiobidearen arabera

Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunaren azterketa 2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Arabako hiriburuak du zentraltasun handiena EAEko lurraldeen artean. Hiri ertainen banaketa urria da lurraldean, Laudio eta Amurrio izan ezik, biak Arabako Kantaurialdeko eskualdean baitaude eta funtzionalki Bilboko metropoliarekin lotuta. Gainera, Arabako Errioxako herriguneek lotura handia dute EAetik kanpoko herriekin (Logroño, Haro edo Miranda de Ebro). Lurralde-antolamenduak erakusten dituen ezaugarri horiek Lurralde Historikoaren barruan erregistratzen den mugikortasun motan islatzen dira. Dituen kontzentrazioaren eta zentraltasun handiaren ondorioz, Arabako barne joan-etorrien % 81,6k Gasteiz dute abiapuntu eta helmuga. Arabako Kantaurialdea da bigarren eskualdea barne joan-etorriak sortu eta erakartzeari dagokionez, nahiz eta kasuen % 92,0ean eskualdean bertan ebatzen diren. Gorbeialdean, joan-etorrien erdiak eskualde barrukoak dira, eta beste erdiak Gasteizekoak. Arabako Errioxaren kasuan, joan-etorrien % 86,1 eskualde barrukoak dira. Arabako Mendialdea eta Añana dira joan-etorriak erakartzeko eta sortzeko gaitasun gutxien duten eskualdeak. Arabako Lautadan (Gasteiz alde batera utzita) joan-etorrien % 63,0 eskualde barrukoak dira, eta gainerako % 32,4 Gasteizekiko trukeak dira.

Taula 42. Arabako barne joan-etorriak eskualdeen arabera

JATORRIA	HELMUGA							
	Añana	Arabako Lautada	Vitoria - Gasteiz	Arabako Mendialdea	Arabako Errioxa	Gorbeialdea	Arabako Kantaurialdea	GUZTIRA
Añana	4.421	169	2.323	19	124	108	0	7.165
Arabako Lautada	224	16.569	8.532	228	0	365	384	26.302
Vitoria - Gasteiz	2.253	8.900	745.170	1.109	1.622	4.835	3.004	766.894
Arabako Mendialdea	39	85	1.229	3.406	43	26	49	4.877
Arabako Errioxa	105	0	1.512	200	11.248	0	0	13.065
Gorbeialdea	104	340	4.746	27	0	5.028	262	10.507
Arabako Kantaurialdea	0	384	2.641	50	0	243	80.681	83.999
GUZTIRA	7.146	26.447	766.153	5.039	13.037	10.605	84.380	912.808

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 43. Arabako barne joan-etorriak eskualdeen arabera (%)

JATORIA	HELMUGA							
	Añana	Arabako Lautada	Vitoria - Gasteiz	Arabako Mendialdea	Arabako Errioxa	Gorbeialdea	Arabako Kantaurialdea	GUZTIRA
Añana	0,5	0,0	0,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,8
Arabako Lautada	0,0	1,8	0,9	0,0	0,0	0,0	0,0	2,9
Vitoria - Gasteiz	0,2	1,0	81,6	0,1	0,2	0,5	0,3	84,0
Arabako Mendialdea	0,0	0,0	0,1	0,4	0,0	0,0	0,0	0,5
Arabako Errioxa	0,0	0,0	0,2	0,0	1,2	0,0	0,0	1,4
Gorbeialdea	0,0	0,0	0,5	0,0	0,0	0,6	0,0	1,2
Arabako Kantaurialdea	0,0	0,0	0,3	0,0	0,0	0,0	8,8	9,2
GUZTIRA	0,8	2,9	83,9	0,6	1,4	1,2	9,2	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

EAEko gainerako metropoli-inguruneetan Arabako Lautadarekin sortutako joan-etorriak aztertuta, garrantzi berezia hartzen du Donostialdeak, joan-etorri horien % 97,3 biltzen baititu, eta Bilbo Handiak, berriz, % 2,8. Donostialdearen kasuan, automobila da gehien erabilitako garraiobidea Bilbo Handiko pertsonen egindako joan-etorriek duten multimodalitatearen aldean.

Taula 44. Arabako Lautada helmuga duten metropolietako joan-etorriak

Helmuga Arabako Lautada	Donostialdea		Bilbo Handia	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Automobila	2.599	100,0	0	0,0
Multimodala	0	0,0	74	100,0
GUZTIRA	2.599	100	74	100


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 45. Gasteizek kanpoaldearekin soilik sortutako edo erakarritako joan-etorriak (barne joan-etorriak gabe) garraibideen arabera

Garraibidea	Jatorria Vitoria - Gasteiz	Helmuga Vitoria - Gasteiz	GUZTIRA	%
Oinez	27	71	97	0,1
Bizikleta	253	254	506	0,3
Ez-motordunak	279	324	604	0,4
Automobila	66.752	61.535	128.287	83,9
Motozikleta	20	19	39	0,0
Autobus-zerbitzu pribatua	3.652	4.246	7.899	5,2
Errepideko garraio publikoa	2.003	2.300	4.303	2,8
Trena	0	60	60	0,0
Motordunak	72.427	68.161	140.588	91,9
Beste batzuk	85	86	171	0,1
Multimodala	4.623	6.967	11.590	7,6
GUZTIRA	77.415	75.538	152.953	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 46. Gasteizko barneko joan-etorrien banaketa (jatorria eta helmuga), garraibidearen arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.4.2 Bizkaia

Bizkaian, probintzia barruan bertan, guztira, 3.389.521 barne joan-etorri egiten dira egunero.

Joan-etorriak eragiten dituzten arrazoiei dagokienez, Bizkaian lanak bidaien % 26,2 eragiten ditu, eta, ondoren, aisiak % 22,9. Lurralde horretan da heterogeneoena joan-etorrien motibazioa. Kudeaketek % 18,1eko pisua dute; erosketek, berriz, joan-etorrien % 12,4 eragiten dute. Lana eta ikasketak kontuan hartuta, mugikortasun okupazionalak mugimenduen % 39,2 sortzen du.


Irudia 47. Barneko joan-etorrien banaketa Bizkaian arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Bizkaian barne joan-etorriak egiteko erabilitako garraiobideei dagokienez, oinezko modua da barneratze-kuota handiena duena (% 51,5), eta hori da lurralde horretan pisurik handiena duen garraiatzeko modua. Atzetik, automobila (% 29,9) eta trena (% 8,7) daude. Era berean, trenaren erabilera-kuota hiru Lurralde Historikoetako altuena da.

Irudia 48. Barneko joan-etorrien banaketa Bizkaian garraiobidearen arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Bizkaiko lurralde-antolamendua oso lotuta dago Bilbo metropolitarrarekin, Kantauri itsasertzeko metropoli-eremu handiena baita, eta EAEko biztanleriaren % 40 inguru biltzen duen hiri-ingurunea da. Lurralde Historikoaren gainerakoa tamaina ertaineko hirien inguruan egituratzen da, hala nola Gernika, Durango edo Markina. Lurralde-egitura horrek barne joan-etorrien mugikortasunean eragiten du. Joan-etorrien % 78,7 Bilbo Handiko eskualde barrukoak dira (Bilbo barne). Gainerako eskualdeei dagokienez, Durangaldea, Plentzia-Mungia eta Gernika-Bermeo dira joan-etorriak erakartzeko eta sortzeko gaitasun handiena dutenak. Durangaldearen kasuan, eskualdeko mugikortasunak berak hartzen du garrantzia, eskualde horretan sortutako fluxuen % 83,0 baita.

Taula 46. Bizkaiko barne joan-etorriak eskualdeen arabera

JATORRIA	HELMUGA								
	Arratia-Nerbioi	Bilbo Handia	Bilbo	Durangaldea	Enkartzioak	Gernika-Bermeo	Markina-Ondarroa	Plentzia-Mungia	GUZTIRA
Arratia-Nerbioi	17.406	8.876	2.223	2.476	0	0	252	694	31.927
Bilbo Handia	8.877	1.396.222	154.401	19.395	9.574	6.992	5.121	29.882	1.630.462
Bilbo	2.397	155.275	962.684	12.134	4.669	4.375	2.192	14.033	1.157.759
Durangaldea	2.323	19.302	12.478	209.148	425	3.267	1.851	3.157	251.951
Enkartzioak	0	9.667	4.525	477	32.350	0	0	1.046	48.065
Gernika-Bermeo	0	6.462	5.248	3.050	0	85.895	1.145	1.858	103.658
Markina-Ondarroa	215	2.785	2.017	1.821	0	996	36.349	0	44.183
Plentzia-Mungia	714	31.538	12.695	0	1.303	2.158	0	73.107	121.516
GUZTIRA	31.933	1.630.126	1.156.271	248.501	48.321	103.683	46.910	123.777	3.389.521

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 47. Bizkaiko barne joan-etorriak eskualdeen arabera (%)

JATORRIA	HELMUGA								
	Arratia-Nerbioi	Bilbo Handia	Bilbo	Durangaldea	Enkartzioak	Gernika-Bermeo	Markina-Ondarroa	Plentzia-Mungia	GUZTIRA
Arratia-Nerbioi	0,5	0,3	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,9
Bilbo Handia	0,3	41,2	4,6	0,6	0,3	0,2	0,2	0,9	48,1
Bilbo	0,1	4,6	28,4	0,4	0,1	0,1	0,1	0,4	34,2
Durangaldea	0,1	0,6	0,4	6,2	0,0	0,1	0,1	0,1	7,4
Enkartzioak	0,0	0,3	0,1	0,0	1,0	0,0	0,0	0,0	1,4
Gernika-Bermeo	0,0	0,2	0,2	0,1	0,0	2,5	0,0	0,1	3,1
Markina-Ondarroa	0,0	0,1	0,1	0,1	0,0	0,0	1,1	0,0	1,3
Plentzia-Mungia	0,0	0,9	0,4	0,0	0,0	0,1	0,0	2,2	3,6
GUZTIRA	0,9	48,1	34,1	7,3	1,4	3,1	1,4	3,7	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Bilbo Handiko metropoli-inguruneak Arabako Lautada eta Donostialdea jatorri dituzten 2.387 joan-etorri erakartzen ditu. Donostialdeak joan-etorri horiek sortzeko gaitasun handiagoa du, % 96,6 biltzen baitu. Automobila da Donostialdea Bilbo Handiarekin lotzen duen garraiobidea; Arabako metropoli-eremuarekin, berriz, multimodalitatea.

Taula 48. Bilbo Handia helmuga duten metropolietako joan-etorriak

Helmuga Bilbo Handia	Donostialdea		Arabako Lautada	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Automobila	2.305	100	0	0,0
Multimodala	0	0,0	82	100
GUZTIRA	2.305	100	82	100


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 49. Bilbok kanpoaldearekin soilik sortutako edo erakarririko joan-etorriak (barne joan-etorriak gabe) garraibideen arabera

Garraibidea	Jatorria Bilbo	Helmuga Bilbo	GUZTIRA	%
Oinez	2.155	1.553	3.708	0,8
Bizikleta	517	528	1.044	0,2
Ez-motordunak	2.672	2.080	4.752	1,0
Automobila	108.977	107.967	216.944	46,3
Motozikleta	1.089	1.089	2.178	0,5
Autobus-zerbitzu pribatua	6.595	6.385	12.980	2,8
Errepideko garraio publikoa	24.920	20.656	45.577	9,7
Trena	69.461	71.450	140.911	30,1
Motordunak	211.042	207.548	418.590	89,4
Beste batzuk	0	172	172	0,0
Multimodala	21.014	23.935	44.949	9,6
GUZTIRA	234.728	233.735	468.462	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 49. Bilboko barne joan-etorrien banaketa (jatorria eta helmuga), garraiobidearen arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.4.3 Gipuzkoa

Gipuzkoan, probintzian bertan, 1.806.919 barne-joan-etorri egiten dira egunero.

Joan-etorriak eragiten dituzten arrazoiei dagokienez, Gipuzkoan lanak bidaien % 30,4 eragiten ditu, eta, ondoren, aisia % 23,3. Kudeaketak % 16,0ko pisua dute, eta erosketak, berriz, joan-etorrien % 11,8 eragiten dituzte. Lana eta ikasketak kontuan hartuta, mugikortasun okupazionalak mugimenduen % 41,6 sortzen du.


Irudia 50. Gipuzkoako barne joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Lurralde-inguruneko barne joan-etorri horiek oinez egiten dira gehienbat (% 42,0). Hala ere, Gipuzkoan erabiltzen da gehien automobila joan-etorri horiek egiteko, erabilera kuota % 39,9 baita. Errepideko garraio kolektiboak nolabaiteko presentzia lortzen du, barne-fluxuen % 8,2rekin, eta barneratze-kuota hori altuena da hiru lurraldeen artean hiri barruko eta hiriarteko autobus-zerbitzuei dagokienez.

Irudia 51. Barne joan-etorrien banaketa Gipuzkoan garraiobidearen arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Gipuzkoa lurralde osoan nahiko modu homogeneoan banatutako hiri ertainen sare baten inguruan egituratzen da, hiriburuak oreka hori bildu eta hautsi gabe. Lurralde-antolamendu horrek eragina du Donostiak eta bere metropoli-areak probintziako gainerako lurraldeekiko fluxuak erakartzeko eta sortzeko duten ahalmenean. Donostialdea osoko (Donostia barne) barne-bidaien ehunekoa % 49,8 da, Bilbo Handiko edo Arabako Lautadako ehunekoak baino askoz txikiagoa. Eskualde guztietan, barne-desplazamenduen sorrerak probintziako gainerako eskualdeetatik sortutakoak edota erakarritakoak baino garrantzi handiagoa hartzen du.

Taula 50. Gipuzkoako barne joan-etorriak eskualdeen arabera

JATORRIA	HELMUGA								
	Bidasoa Beherea	Debabarrena	Debagoiena	Donostialdea	Donostia - San Sebastián	Goierri	Tolosaldea	Urola Kosta	GUZTIRA
Bidasoa Beherea	179.575	0	1.684	15.438	10.858	1.281	1.652	2.270	212.757
Debabarrena	0	103.409	3.281	1.546	5.424	1.118	1.155	3.601	119.534
Debagoiena	1.112	3.502	107.354	4.021	1.772	2.738	0	3.274	123.773
Donostialdea	14.209	1.466	3.440	277.028	59.036	4.940	8.190	6.582	374.891
Donostia - San Sebastián	10.338	3.125	2.340	64.374	499.400	4.670	6.892	8.032	599.171
Goierri	467	2.517	2.919	4.544	6.274	99.203	4.690	3.929	124.544
Tolosaldea	1.693	1.281	0	10.108	6.941	4.453	73.296	3.311	101.083
Urola Kosta	1.198	3.538	2.462	7.353	9.396	3.630	2.996	120.592	151.166
GUZTIRA	208.592	118.839	123.480	384.412	599.102	122.033	98.871	151.591	1.806.919

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 51. Gipuzkoako barne joan-etorriak eskualdeen arabera (%)

JATORRIA	HELMUGA								
	Bidasoa Beherea	Debabarrena	Debagoiena	Donostialdea	Donostia - San Sebastián	Goierri	Tolosaldea	Urola Kosta	GUZTIRA
Bidasoa Beherea	9,9	0,0	0,1	0,9	0,6	0,1	0,1	0,1	11,8
Debabarrena	0,0	5,7	0,2	0,1	0,3	0,1	0,1	0,2	6,6
Debagoiena	0,1	0,2	5,9	0,2	0,1	0,2	0,0	0,2	6,8
Donostialdea	0,8	0,1	0,2	15,3	3,3	0,3	0,5	0,4	20,7
Donostia - San Sebastián	0,6	0,2	0,1	3,6	27,6	0,3	0,4	0,4	33,2
Goierri	0,0	0,1	0,2	0,3	0,3	5,5	0,3	0,2	6,9
Tolosaldea	0,1	0,1	0,0	0,6	0,4	0,2	4,1	0,2	5,6
Urola Kosta	0,1	0,2	0,1	0,4	0,5	0,2	0,2	6,7	8,4
GUZTIRA	11,5	6,6	6,8	21,3	33,2	6,8	5,5	8,4	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Donostialdeko metropoli-inguruneak Arabako Lautada eta Bilbo Handia jatorri dituzten 5.473 joan-etorri erakartzen ditu, eta fluxuak erakartzeko ahalmen handiena duen metropoli-ingurunea da. Donostialdeak Bilbo Handiarekin eta Arabako Lautadarekin harremanak izateko gaitasun oso antzekoa du (% 48,9 eta % 51,1 hurrenez hurren). Joan-etorri guztiak automobiler egiten dira.

Taula 52. Donostialdea helmuga duten metropolietako joan-etorriak

Helmuga Donostialdea	Bilbo Handia		Arabako Lautada	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Automobila	2.677	100	2.797	100
Multimodala	0	0,0	0	0,0
GUZTIRA	2.677	100	2.797	100


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 53. Donostiak kanpoaldearekin soilik sortutako edo erakarritako joan-etorriak (barne joan-etorriak gabe) garraiobideen arabera

Garraiobidea	Jatorria Donostia-San Sebastián	Helmuga Donostia-San Sebastián	GUZTIRA	%
Oinez	3.820	3.799	7.620	3,1
Bizikleta	410	540	950	0,4
Ez-motordunak	4.230	4.339	8.569	3,5
Automobila	78.424	80.871	159.295	65,2
Motozikleta	2.104	1.687	3.791	1,6
Autobus-zerbitzu pribatua	561	1.124	1.685	0,7
Errepideko garraio publikoa	18.753	18.963	37.716	15,4
Trena	12.736	12.063	24.800	10,1
Motordunak	112.579	114.708	227.287	93,0
Beste batzuk	0	0	0	0,0
Multimodala	3.571	4.942	8.513	3,5
GUZTIRA	120.379	123.989	244.369	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Irudia 52. Donostiako barne joan-etorrien banaketa (jatorria eta helmuga), garraiobidearen arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.4.4 Helmuga hiru hiriburuetan duten joan-etorriak

Hiru hiriburuek garrantzi handia dute EAEko barne-mugikortasunaren barruan. Guztira 2.640.517 joan-etorriren helmuga dira, hau da, guztizkoaren % 40,6. Hiru hiriburuaren artean, Bilbok du joan-etorriak sortzeko eta erakartzeko gaitasun handiena, hiru hiriburuek erakarritako joan-etorri guztien % 45,3 biltzen baititu; Gasteizek (% 31,0) eta Donostiak (% 23,6), berriz, erakarpen-ahalmen txikiagoa dute.

Taula 54. Helmuga hiru hiriburuetan duten joan-etorrien banaketa, barne joan-etorriak kontuan hartuta

JATORRIA	HELMUGA			
	Vitoria - Gasteiz	Bilbo	Donostia-San Sebastián	GUZTIRA
Añana	2.323	632	0	2.955
Arabako Lautada	8.532	624	185	9.341
Vitoria - Gasteiz	745.170	8.227	2.224	755.622
Arabako Mendialdea	1.229	0	0	1.229
Arabako Errioxa	1.512	0	0	1.512
Gorbeialdea	4.746	1.116	0	5.862
Arabako Kantaurialdea	2.641	5.932	50	8.623
ARABA	766.153	16.532	2.459	785.144
Arratia-Nerbioi	1.843	2.223	0	4.066
Bilbo Handia	7.134	154.401	3.375	164.910
Bilbo	7.395	962.684	11.778	981.857
Durangaldea	8.637	12.478	1.734	22.848
Enkartzioak	178	4.525	0	4.703
Gernika-Bermeo	397	5.248	475	6.120
Markina-Ondarroa	138	2.017	555	2.710
Plentzia-Mungia	4.253	12.695	0	16.948
BIZKAIA	29.974	1.156.271	17.917	1.204.162
Bidasoa Beherea	0	0	10.858	10.858
Debabarena	210	2.487	5.424	8.120
Debagoiena	5.755	3.411	1.772	10.938
Donostialdea	393	2.047	59.036	61.476
Donostia - San Sebastián	3.012	9.388	499.400	511.801
Goierrri	8.180	0	6.274	14.454
Tolosaldea	0	51	6.941	6.992
Urola Kosta	189	800	9.396	10.385
GIPUZKOA	17.739	18.185	599.102	635.025
EAE	813.866	1.190.987	619.477	2.624.331
Kanpoko nazionala	6.842	5.432	3.615	15.889
Kanpoko internazionala	0	0	297	297
KANPOKOA	6.842	5.432	3.912	16.186
GUZTIRA	820.708	1.196.419	623.389	2.640.517

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 55. Helmuga hiru hiriburuetan duten joan-etorrien banaketa, barne joan-etorriak kontuan hartuta (%)

JATORRIA	HELMUGA			
	Vitoria - Gasteiz	Bilbo	Donostia-San Sebastián	GUZTIRA
Añana	0,3	0,1	0,0	0,1
Arabako Lautada	1,0	0,1	0,0	0,4
Vitoria - Gasteiz	90,8	0,7	0,4	28,6
Arabako Mendialdeak	0,1	0,0	0,0	0,0
Arabako Errioxa	0,2	0,0	0,0	0,1
Gorbeialdea	0,6	0,1	0,0	0,2
Arabako Kantaurialdea	0,3	0,5	0,0	0,3
ARABA	93,4	1,4	0,4	29,7
Arratia-Nerbioi	0,2	0,2	0,0	0,2
Bilbo Handia	0,9	12,9	0,5	6,2
Bilbo	0,9	80,5	1,9	37,2
Durangaldea	1,1	1,0	0,3	0,9
Enkartzioak	0,0	0,4	0,0	0,2
Gernika-Bermeo	0,0	0,4	0,1	0,2
Markina-Ondarroa	0,0	0,2	0,1	0,1
Plentzia-Mungia	0,5	1,1	0,0	0,6
BIZKAIA	3,7	96,6	2,9	45,6
Bidasoa Beherea	0,0	0,0	1,7	0,4
Debabarrena	0,0	0,2	0,9	0,3
Debagoiena	0,7	0,3	0,3	0,4
Donostialdea	0,0	0,2	9,5	2,3
Donostia - San Sebastián	0,4	0,8	80,1	19,4
Goierrri	1,0	0,0	1,0	0,5
Tolosaldea	0,0	0,0	1,1	0,3
Urola Kosta	0,0	0,1	1,5	0,4
GIPUZKOA	2,2	1,5	96,1	24,0
EAE	99,2	99,5	99,4	99,4
Kanpoko nazionala	0,8	0,5	0,6	0,6
Kanpoko internazionala	0,0	0,0	0,0	0,0
KANPOKOA	0,8	0,5	0,6	0,6
GUZTIRA	100	100	100	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Hiru kasuetan automobila da EAEko biztanleek hiru hiriburuetarantz iristeko gehien erabiltzen duten garraiobidea, baina alde nabarmenak daude udalerri bakoitzean.

B.2.4.4.1 Vitoria – Gasteiz

Kanpotik Gasteizerako joan-etorri gehienak Bizkaitik datoz (% 39,7), eta bereziki garrantzitsuak dira Bilbo Handian sortutakoak (Bilbo barne). Araba da bigarren lurraldea, joan-etorri guztien % 27,7rekin, eta, ondoren, Gipuzkoa % 23,5rekin. Horren arrazoia izan daiteke hiriak administrazio-hiriburu gisa duen eginkizuna. Azpimarratu behar da Gasteiz dela EAetik kanpoko joan-etorri gehien erakartzen dituen hiriburua, 6.842 guztira, hau da, hirira egiten diren joan-etorrien % 9,1.

Automobila da kanpoaldetik Gasteizera joateko gehien erabiltzen den garraiobidea, joan-etorrien % 81,5 biltzen baititu, eta hori da EAEko hiru hiriburuetako ehuneko handiena.

Taula 56. Kanpoaldetik Vitoria-Gasteizerako sarbideak garraiobidearen arabera

JATORRIA	Ez-motordunak	Automobila	Motozikleta	Autobus- zerbitzu pribatua	Errepideko garraio publikoa	Trena	Beste batzuk	Multimodala	GUZTIRA
Añana	0	2.121	0	0	118	0	60	24	2.323
Arabako Lautada	127	7.292	0	768	244	60	0	41	8.532
Arabako Mendialdea	10	991	0	10	37	0	0	182	1.229
Arabako Errioxa	0	1.310	0	0	202	0	0	0	1.512
Gorbeialdea	188	4.278	19	0	201	0	26	34	4.746
Arabako Kantaurialdea	0	2.607	0	0	34	0	0	0	2.641
ARABA	324	18.599	19	778	836	60	86	281	20.983
Arratia-Nerbioi	0	1.699	0	0	0	0	0	144	1.843
Bilbo Handia	0	4.316	0	1.017	249	0	0	1.552	7.134
Bilbo	0	2.776	0	2.452	365	0	0	1.802	7.395
Durangaldea	0	6.430	0	0	0	0	0	2.207	8.637
Enkartzioak	0	0	0	0	0	0	0	178	178
Gernika-Bermeo	0	397	0	0	0	0	0	0	397
Markina-Ondarroa	0	138	0	0	0	0	0	0	138
Plentzia-Mungia	0	4.253	0	0	0	0	0	0	4.253
BIZKAIA	0	20.009	0	3.468	614	0	0	5.883	29.974
Bidasoa Beherea	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Debabarrena	0	210	0	0	0	0	0	0	210
Debagoiena	0	4.905	0	0	850	0	0	0	5.755
Donostialdea	0	393	0	0	0	0	0	0	393
Donostia - San Sebastián	0	3.012	0	0	0	0	0	0	3.012
Goierri	0	8.180	0	0	0	0	0	0	8.180
Tolosaldea	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Urola Kosta	0	189	0	0	0	0	0	0	189
GIPUZKOA	0	16.889	0	0	850	0	0	0	17.739
EAE	324	55.496	19	4.246	2.300	60	86	6.164	68.696
Kanpoko nazionala	0	6.039	0	0	0	0	0	803	6.842
Kanpoko nazionala	0	0	0	0	0	0	0	0	0
KANPOKOA	0	6.039	0	0	0	0	0	803	6.842
GUZTIRA	324	61.535	19	4.246	2.300	60	86	6.907	75.538

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 57. Kanpoaldetik Vitoria-Gasteizerako sarbideak garraiobidearen arabera (%)

JATORRIA	Ez-motordunak	Automobila	Motozikleta	Autobus-zerbitzu pribatua	Errepideko garraio publikoa	Trena	Beste batzuk	Multimodala	GUZTIRA
Añana	-	91,3	-	-	5,1	-	2,6	1,0	100
Arabako Lautada	1,5	85,5	-	9,0	2,9	0,7	-	0,5	100
Arabako Mendialdea	0,8	80,6	-	0,8	3,0	-	-	14,8	100
Arabako Errioxa	-	86,6	-	-	13,4	-	-	-	100
Gorbeialdea	4,0	90,2	0,4	-	4,2	-	0,5	0,7	100
Arabako Kantaurialdea	-	98,7	-	-	1,3	-	-	-	100
ARABA	1,5	88,6	0,1	3,7	4,0	0,3	0,4	1,3	100
Arratia-Nerbioi	-	92,2	-	-	-	-	-	7,8	100
Bilbo Handia	-	60,5	-	14,3	3,5	-	-	21,8	100
Bilbo	-	37,5	-	33,2	4,9	-	-	24,4	100
Durangaldea	-	74,4	-	-	-	-	-	25,6	100
Enkartzioak	-	-	-	-	-	-	-	100,0	100
Gernika-Bermeo	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
Markina-Ondarroa	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
Plentzia-Mungia	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
BIZKAIA	-	66,8	-	11,6	2,0	-	-	19,6	100
Bidasoa Beherea	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Debabarrena	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
Debagoiena	-	85,2	-	-	14,8	-	-	-	100
Donostialdea	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
Donostia - San Sebastián	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
Goierri	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
Tolosaldea	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Urola Kosta	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
GIPUZKOA	-	95,2	-	-	4,8	-	-	-	100
EAE	0,5	80,8	0,0	6,2	3,3	0,1	0,1	9,0	100
Kanpoko nazionala	-	88,3	-	-	-	-	-	11,7	100
Kanpoko nazionala	-	-	-	-	-	-	-	-	-
KANPOKOA	-	88,3	-	-	-	-	-	11,7	100
GUZTIRA	0,4	81,5	0,0	5,6	3,0	0,1	0,1	9,2	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.4.4.2 Bilbo

Bilbon, kanpotik hirira sartzeko fluxu gehienak Bizkaiko gainerako lurraldeetatik datoz (% 82,8, guztira 193.586 joan-etorri), eta bereziki gainerako Bilbo Handiko eskualdetik (154.401 bidaia), Bizkaian sortutakoen % 79,8 baitira. EAEko gainerako Lurralde Historikoei dagokienez, Arabak 16.532 joan-etorri sortzen ditu guztira Bilbora sartzeko, hau da, joan-etorri guztien % 7,1. Gehienek Gasteizen (8.227) eta Arabako Kantaurialdeko udalerrietan (5.932) dute jatorria. Bilborako 18.185 joan-etorri, berriz, Gipuzkoako lurraldetik datoz (% 7,8). Horiek, batez ere, Donostian eta Debagoiena eskualdean dute jatorria, egunean 9.388 eta 3.411 joan-etorri, hurrenez hurren.

Gainerako hiriburuetan bezala, automobila da hirira sartzeko garraiobiderik erabiliena, nahiz eta, kasu honetan, hiru hiriburuetako barneratze-ehunekorik txikiena izan: % 46,2. Aipagarria da trenaren kuota, guztizkoaren % 30,6ra iristen baita hiriko metropoli-eremuan integratutako trenbide-sareari esker (Renfe, Feve, Euskotren eta metroa). Trenez egunero egiten diren 71.450 joan-etorrietatik 63.791 metroz egiten dira (% 89,3).

Taula 58. Kanpoaldetik Bilborako sarbideak garraiobidearen arabera

JATORRIA	Ez-motordunak	Automobila	Motozikleta	Autobus- zerbitzu pribatua	Errepideko garraio publikoa	Trena	Beste batzuk	Multimodala	GUZTIRA
Añana	0	395	0	0	0	0	0	237	632
Arabako Lautada	0	624	0	0	0	0	0	0	624
Vitoria - Gasteiz	0	3.973	0	2.424	365	0	0	1.466	8.277
Arabako Mendialdea	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Arabako Errioxa	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Gorbeialdea	0	313	0	0	0	0	0	803	1.116
Arabako Kantaurialdea	0	3.315	0	85	0	1.199	172	1.161	5.932
ARABA	0	8.619	0	2.508	365	1.199	172	3.668	16.532
Arratia-Nerbioi	0	1.451	0	0	376	77	0	320	2.223
Bilbo Handia	1.806	60.047	867	3.341	13.165	67.035	0	8.140	154.401
Durangaldea	0	5.791	222	276	2.126	1.222	0	2.840	12.478
Enkartzioak	275	2.560	0	0	457	365	0	868	4.525
Gernika-Bermeo	0	2.672	0	259	1.127	0	0	1.190	5.248
Markina-Ondarroa	0	1.191	0	0	413	0	0	413	2.017
Plentzia-Mungia	0	8.550	0	0	1.368	1.552	0	1.226	12.695
BIZKAIA	2.080	82.262	1.089	3.876	19.031	70.251	0	14.996	193.586
Bidasoa Behera	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Debabarrena	0	2.366	0	0	8	0	0	113	2.487
Debagoiena	0	181	0	0	0	0	0	3.230	3.411
Donostialdea	0	525	0	0	0	0	0	1.522	2.047
Donostia - San Sebastián	0	7.781	0	0	1.253	0	0	354	9.388
Goierri	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Tolosaldea	0	0	0	0	0	0	0	51	51
Urola Kosta	0	800	0	0	0	0	0	0	800
GIPUZKOA	0	11.654	0	0	1.261	0	0	5.270	18.185
EAE	2.080	102.535	1.089	6.385	20.656	71.450	172	23.935	228.303
Kanpoko nazionala	0	5.432	0	0	0	0	0	0	5.432
Kanpoko nazionala	0	0	0	0	0	0	0	0	0
KANPOKOA	0	5.432	0	0	0	0	0	0	5.432
GUZTIRA	2.080	107.967	1.089	6.385	20.656	71.450	172	23.935	233.735

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 59. Kanpoaldetik Bilborako sarbideak garraiobidearen arabera (%)

JATORRIA	Ez-motordunak	Automobila	Motozikleta	Autobus- zerbitzu pribatu	Errepideko garraio publikoa	Trena	Beste batzuk	Multimodala	GUZTIRA
Añana	-	62,5	-	-	-	-	-	37,5	100
Arabako Lautada	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
Vitoria - Gasteiz	-	48,3	-	29,5	4,4	-	-	17,8	100
Arabako Mendialdea	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arabako Errioxa	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gorbeialdea	-	28,0	-	-	-	-	-	72,0	100
Arabako Kantaurialdea	-	55,9	-	1,4	-	20,2	2,9	19,6	100
ARABA	-	52,1	-	15,2	2,2	7,3	1,0	22,2	100
Arratia- Nerbioi	-	65,3	-	-	16,9	3,4	-	14,4	100
Bilbo Handia	1,2	38,9	0,6	2,2	8,5	43,4	-	5,3	100
Durangaldea	-	46,4	1,8	2,2	17,0	9,8	-	22,8	100
Enkartzioak	6,1	56,6	-	-	10,1	8,1	-	19,2	100
Gernika- Bermeo	-	50,9	-	4,9	21,5	-	-	22,7	100
Markina- Ondarroa	-	59,1	-	-	20,5	-	-	20,5	100
Plentzia- Mungia	-	67,3	-	-	10,8	12,2	-	9,7	100
BIZKAIA	1,1	42,5	0,6	2,0	9,8	36,3	-	7,7	100
Bidasoa Beherea	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Debabarrena	-	95,1	-	-	0,3	-	-	4,5	100
Debagoiena	-	5,3	-	-	-	-	-	94,7	100
Donostialdea	-	25,6	-	-	-	-	-	74,4	100
Donostia - San Sebastián	-	82,9	-	-	13,3	-	-	3,8	100
Goierrri	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Tolosaldea	-	-	-	-	-	-	-	100,0	100
Urola Kosta	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
GIPUZKOA	-	64,1	-	-	6,9	-	-	29,0	100
EAE	0,9	44,9	0,5	2,8	9,0	31,3	0,1	10,5	100
Kanpoko nazionala	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
Kanpoko internazionala	-	-	-	-	-	-	-	-	-
KANPOKOA	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
GUZTIRA	0,9	46,2	0,5	2,7	8,8	30,6	0,1	10,2	100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.2.4.4.3 Donostia-San Sebastián

Donostiak egunero kanpoaldetik hirira sartzeko 123.989 joan-etorri biltzen ditu. Horien % 80,4 (99.702) probintziatik bertatik datoz, batez ere Donostialdetik (% 47,6) eta Bidasoa Beheretik (% 8,8). Gainerako Lurralde Historikoei dagokienez, Bizkaia 17.917 joan-etorri sortzen ditu (% 14,5); horietatik % 84,6 Bilbo Handitik datoz (Bilbo barne), eta Araban sortutakoak, berriz, guztizkoaren % 2,0 dira.

Gipuzkoako hiriburura sartzen diren joan-etorri horiek egiteko erabilitako garraiobideari dagokionez, automobilak du erabilera-kuotarik handiena, % 65,2eko ehunekora iritsiz; ondoren, errepideko garraio kolektiboa (% 15,3, hiru hiriburuetakoko kuotarik altuena izanik) eta trena daude (% 9,7).

Taula 60. Kanpoaldetik Donostiarako sarbideak garraibidearen arabera

JATORRIA	Ez-motordunak	Automobila	Motozikleta	Autobus- zerbitzu pribatua	Errepideko garraio publikoa	Trena	Beste batzuk	Multimodala	GUZTIRA
Añana	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Arabako Lautada	0	146	0	0	0	0	0	39	185
Vitoria - Gasteiz	0	2.224	0	0	0	0	0	0	2.224
Arabako Mendialdea	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Arabako Errioxa	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Gorbeialdea	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Arabako Kantaurialdea	0	0	0	0	0	0	0	50	50
ARABA	0	2.370	0	0	0	0	0	89	2.459
Arratia-Nerbioi	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Bilbo Handia	0	2.308	0	324	265	0	0	478	3.375
Bilbo	0	9.480	0	0	1.868	0	0	430	11.778
Durangaldea	0	1.399	0	0	0	0	0	335	1.734
Enkartzioak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Gernika-Bermeo	0	475	0	0	0	0	0	0	475
Markina-Ondarroa	0	220	0	0	0	0	0	335	555
Plentzia-Mungia	0	0	0	0	0	0	0	0	0
BIZKAIA	0	13.882	0	324	2.134	0	0	1.577	17.917
Bidasoa Beherea	80	5.724	97	257	2.643	2.057	0	0	10.858
Debabarrena	0	5.060	0	0	0	0	0	364	5.424
Debagoiena	0	1.445	0	0	0	0	0	328	1.772
Donostialdea	3.938	33.306	1.590	543	10.967	6.995	0	1.698	59.036
Goierri	0	5.631	0	0	0	643	0	0	6.274
Tolosaldea	0	4.174	0	0	856	1.550	0	362	6.941
Urola Kosta	0	5.960	0	0	2.365	819	0	253	9.396
GIPUZKOA	4.018	61.300	1.687	800	16.829	12.063	0	3.004	99.702
EAE	4.018	77.551	1.687	1.124	17.094	12.063	0	4.671	120.077
Kanpoko nazionala	322	3.023	0	0	0	0	0	271	3.615
Kanpoko internazionala	0	297	0	0	0	0	0	0	297
KANPOKOA	322	3.319	0	0	0	0	0	271	3.912
GUZTIRA	4.339	80.871	1.687	1.124	17.094	12.063	0	4.942	123.989

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Taula 61. Kanpoaldetik Donostiarako sarbideak garraibidearen arabera (%)

JATORRIA	Ez-motordunak	Automobila	Motozikleta	Autobus-zerbitzu pribatua	Errepideko garraio publikoa	Trena	Beste batzuk	Multimodala	GUZTIRA
Añana	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arabako Lautada	-	78,8	-	-	-	-	-	21,2	100
Vitoria - Gasteiz	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
Arabako Mendialdea	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arabako Errioxa	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gorbeialdea	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arabako Kantaurialdea	-	-	-	-	-	-	-	100,0	100
ARABA	-	96,4	-	-	-	-	-	3,6	100
Arratia-Nerbioi	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Bilbo Handia	-	68,4	-	9,6	7,9	-	-	14,1	100
Bilbo									
Durangaldea	-	80,7	-	-	-	-	-	19,3	100
Enkartzioak	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gernika-Bermeo	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
Markina-Ondarroa	-	39,7	-	-	-	-	-	60,3	100
Plentzia-Mungia	-	-	-	-	-	-	-	-	-
BIZKAIA	-	77,5	-	1,8	11,9	-	-	8,8	100
Bidasoa Beherea	0,7	52,7	0,9	2,4	24,3	18,9	-	-	100
Debabarrena	-	93,3	-	-	-	-	-	6,7	100
Debagoiena	-	81,5	-	-	-	-	-	18,5	100
Donostialdea	6,7	56,4	2,7	0,9	18,6	11,8	-	2,9	100
Goierri	-	89,8	-	-	-	10,2	-	-	100
Tolosaldea	-	60,1	-	-	12,3	22,3	-	5,2	100
Urola Kosta	-	63,4	-	-	25,2	8,7	-	2,7	100
GIPUZKOA	4,0	61,5	1,7	0,8	16,9	12,1	-	3,0	100
EAE	3,3	64,6	1,4	0,9	15,8	10,0	-	3,9	100
Kanpoko nazionala	8,9	83,6	-	-	-	-	-	7,5	100
Kanpoko internazionala	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
KANPOKOA	8,2	84,9	-	-	-	-	-	6,9	100
GUZTIRA	3,5	65,2	1,4	0,9	15,3	9,7	-	4,0	100


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.3 2003-2021 bilakaera

Atal honen helburua da EAEn azken urteetan mugikortasun-ereduetan izandako aldaketei buruzko ikuspegi orokorra izatea, aurreko inkesta-prozesuetan lortutako datuetatik abiatuta. 2003 eta 2007ko datuak azterlan honen 2016ko edizioan egindako konparazioari dagozkio.

EAEn joan-etorrien kopuruak behera egin du 2016arekin alderatuta, eta, horrela, 2003az geroztik izandako goranzko joera eten da. Fenomeno hori Lurralde Historikoaren arabera aztertuz gero, Araban eta Gipuzkoan joan-etorri gutxiago erregistratu dira, eta Bizkaian, berriz, joan-etorrien kopuruak gora egin du.


Irudia 53. Joan-etorri guztien bilakaera, bizileku den Lurralde Historikoaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

2021ean, EAEn, biztanle bakoitzeko mugikortasuna eguneko 3,1 joan-etorri izan dira, hau da, 2016an baino % 6,9 gutxiago. Ratio horren bilakaera ez da berdina izan hiru Lurralde Historikoetan, baina hiruretan jaitsi egin da. Jaitsiera orokor horrek Covid-19aren pandemiak EAEn izandako ondorioei erantzun diezaike.


Irudia 54. Biztanle bakoitzeko joan-etorrien batez bestekoaren bilakaera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Sexuen arabera, jaitsiera handiagoa izan da gizonen kasuan, batez beste 3,12 joan-etorri egin baitira gizonen, 2016ko 3,44 joan-etorrien aldean. Hala ere, pertsona bakoitzeko joan-etorrien kopuru handiena duen kolektiboa da oraindik ere, 2021ean emakume bakoitzeko eguneko joan-etorrien batez bestekoa 3,08 izan baita.

Irudia 55. Biztanle bakoitzeko joan-etorrien batez bestekoaren bilakaera sexuaren arabera




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Oro har, multimodalitasunak presentzia txikia du hiru lurraldeetan, eta bilakaera desberdinak izan ditu guztietan. Nolanahi ere, ehuneko puntu 1 igo da 2016aren aldean, eta % 1etik % 2,1era igo da Bizkaiaren kasuan, hiru Lurralde Historikoetako ehuneko igoerarik handiena izanik.

Irudia 56. Joan-etorri intermodalen ehunekoaren bilakaera


Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunaren azterketa 2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Automobilak ehuneko 2,0 puntu egin du gora 2016. urtearekin alderatuta, garraio publikoaren erabileraren eta oinezko joan-etorrien kaltetan, banaketa modalaren barruan horien pisuak behera egin baitu.

Irudia 57. Banaketa modalaren bilakaera



Automobila: autoa (gidari zein bidaiari gisa) eta taxia.

Garraio publikoa: hiri-autobusa, hiriarteko autobusa, Renfe, Feve, tranbia, metroa, Euskotren, funikularra, Bizkaia Zubia eta ordainpeko igogailuak.

Beste batzuk: bizikletaren, motozikletaren, autobus-zerbitzu pribatuaren, itsasontziaren, hegazkinaren, beste batzuen eta multimodalitasunaren erabiltzaileak.

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

EAEko mugikortasunak % 3ko beherakada izan du 2016-2021 aldian, hau da, 2016an baino 205.585 joan-etorri gutxiago egin dira guztira. Termino absolutuetan, oinezkoen moduak 235.357 joan-etorri galdu ditu. Hala ere, automobilaren

presentzia handitu egin da mugikortasunean, 2016an baino 54.073 joan-etorri gehiagorekin. Motozikletak 2016an baino % 32 (25.598) joan-etorri gutxiago izan ditu. Interesgarria da joan-etorri multimodalen gorakada, 50.905 joan-etorri gehiagorekin, hau da, % 86ko igoera 2016aren aldean.

Garraiobide ez-motordunak % 8 jaitsi dira 2016aren aldean, eta horrek esan nahi du, termino absolutuetan, 254.890 joan-etorri gutxiago egiten direla modu horietan. Bizikletaren erabilera % 13 jaitsi da, 19.533 bidaia gutxiago egin baitira ibilgailu hori erabilita eta, oinez, 235.357 joan-etorri gutxiago egin dira, lehen esan bezala.

2021ean 54.073 joan-etorri gehiago egin dira autoa erabiliz, hau da, % 2,0ko igoera izan da. Igoera hori, batez ere, gidari gisa autoz egindako joan-etorrien gorakadak eragin du, egunean 50.710 joan-etorri gehiago egin baitira (% 3,0ko igoera). Autoa bidaiari gisa ia berdin mantendu den bitartean (77 bidaia gehiago soilik), taxiak hazkunde handia izan du: 2016an baino % 43 gehiago. Termino absolutuetan, ordea, 3.286 bidaia gehigarri baino ez dira.

2021ean autobusak % 8ko murrizketa izan du joan-etorrien kopuruan, hau da, 2016an baino 39.613 joan-etorri gutxiago egin dira. Hiri-autobusak eta hiriartekoak % 8,0ko beherakada izan dute, 19.237 eta 13.496 joan-etorri gutxiago, hurrenez hurren. Hala ere, nabarmendu behar da autobus-zerbitzu pribatuaren erabilera % 7 jaitsi dela, egunean 6.879 joan-etorri gutxiagorekin.


Trenari dagokionez, guztizko joan-etorriak % 1 jaitsi dira (5.289 desplazamendu gutxiago). Alde batetik, metroak jasandako beherakada dago, joan-etorriak % 8 murriztu baitira (21.617 joan-etorri gutxiago), baina, bestetik, Euskotrenen egindako joan-etorriak % 48an handitu dira. Kopuru absolutuetan, 20.645 desplazamendu gehiago. Igoera hori 3. linea martxan jartzearen ondorio da. Ehunekoetan beherakada handiena izan duen trenbide bidezko garraioa Feve izan da, % 33ko jaitsierarekin, nahiz eta termino absolutuetan 2016aren aldean bakarrik 913 joan-etorri gutxiago izan.

Taula 62. EAEko mugikortasunaren bilakaera garraiobideen arabera 2016-2021 aldian

Garraiobidea	2016	2021	Aldakuntza (%)
Oinez	3.155.054	2.919.697	-7%
Bizikleta	147.456	127.923	-13%
Ez-motordunak	3.302.510	3.047.620	-8%
Autoa gidaria	1.914.742	1.965.452	3%
Autoa bidaiaria	438.627	438.704	0%
Taxia	7.705	10.991	43%
Automobila	2.361.074	2.415.147	2%
Motozikleta	79.491	53.893	-32%
Hiri-autobusa	240.871	221.634	-8%
Hiriarteko autobusa	163.940	150.444	-8%
Autobus-zerbitzu pribatua	99.710	92.831	-7%
Autobusa	504.521	464.908	-8%
Tranbia	32.315	33.026	2%
Renfe	41.970	37.855	-10%
Feve	2.796	1.883	-33%
Metroa	266.247	244.630	-8%
Euskotren	43.325	63.970	48%
Trena	386.653	381.364	-1%
Beste batzuk	12.196	27.021	122%
Multimodala	59.417	110.322	86%
GUZTIRA	6.705.862	6.500.277	-3%

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Bi Lurralde Historikotan igo da ibilgailu pribatuaren erabilera barruko joan-etorrietan: Araban eta Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, apur bat jaitsi da. Oro har, EAEn automobilak ehuneko 0,9 puntu egin du gora.

Irudia 58. Automobilak Lurralde Historiko bakoitzeko barne-mugikortasunean duen barneratze-mailaren bilakaera

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea


2016an, probintzia bakoitzeko garraio publikoaren barneratze-kuota zertxobait igo da Araban eta Gipuzkoan, baina Bizkaian pisua galdu du banaketa modalean. EAEko guztizkoan garraio publikoaren pisua ehuneko 0,2 puntu igo da.

Arabaren kasuan, ehuneko 1eko igoera bi faktorek eragin dute: batetik, joan-etorriak murriztu egin dira, eta, bestetik, garraio publikoak presentzia handiagoa du joan-etorrietan; izan ere, 2016an, 85.403 joan-etorri egiten ziren garraio publikoan, 1.116.426 joan-etorriekin alderatuta; 2021ean, berriz, 70.229 joan-etorri izan dira (% 17,8 gutxiago), baina, era berean, lurralderako barne-bidaen guztizkoa murriztu da 1.116.426tik 912.808ra (% 18,2).

Hala ere, Gipuzkoaren kasuan, ehuneko 1,5 puntuko igoera garraio publikoaren sartze-kuotaren igoeraren ondorio da; izan ere, 2016an 238.872 joan-etorri ziren, eta 2021ean, berriz, 203.045 joan-etorri (% 15,0 gutxiago), baina Gipuzkoako barne joan-etorrien guztizkoa % 15,0 jaitسي da (1.806.919ra arte 2021ean, 2016ko 2.126.953 desplazamenduekin alderatuta).

Azkenik, Bizkaian garraio publikoak ehuneko 1,4 puntu galdu ditu. Horren arrazoia da garraio publikoan egindako joan-etorriak murriztu egin direla (2016an 538.218 joan-etorri izatetik 2021ean 470.748 joan-etorri izatera) eta Bizkaira egindako barneko joan-etorriak, guztira, 3.194.329tik 3.389.521era igo direla.


Irudia 59. Garraio publikoak Lurralde Historiko bakoitzeko barne-mugikortasunean duen barneratze-mailaren bilakaera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Oinezko modalitatea da hiru lurraldeetan argien nabarmentzen dena, baina Araban eta Gipuzkoan behera egin du eta Bizkaian apur bat gora. Aipatzekoa da bizikletaren erabilera Araban, ia berdin mantentzen baita; beste bi Lurralde Historikoetan, berriz, garrantzi txikia du.


Irudia 60. Garraiobideen bilakaera Lurralde Historiko bakoitzeko barne-mugikortasunean (2016-2021)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Probintzia barruko mugikortasuna da, oraindik ere, egindako joan-etorri gehienak biltzen dituen (% 94,0). 2016an, lurralde bakoitzeko barne-mugikortasunaren pisua % 96 zen; horrek esan nahi du joan-etorri mota horiek murriztu egin direla 2021ean.


Irudia 61. Barne-mugikortasunaren bilakaera, Lurralde Historikoen arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Hiriburuetakako bakoitzean jatorria eta helmuga duten joan-etorriek portaera bera dute: hiru kasuetan nabarmen murrizten da mota horretako joan-etorrien kopurua. Gasteizen ehuneko 10,8 puntu galdu dira; Bilbon 8,3 puntu eta Donostian 2016an baino ehuneko 16,9 puntu gutxiago.


Irudia 62. Barne-mugikortasunaren bilakaera hiriburuen arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Hiru hiriburuetan barne joan-etorrietarako garraio publikoaren erabilerari dagokionez, 2021ean, bai Gasteizen, bai Donostian, gora egin du 2016ko datuekin alderatuta, eta Bilbon, berriz, garraio publikoaren erabilerak behera egin du apur bat.

Irudia 63. Garraio publikoaren bilakaera hiriburuetako barne-mugikortasunean



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

B.4 Ondorioak

2021eko batez besteko lanegun batean, EAEn bizi diren 7 urte eta gehiagoko pertsonen 6.500.277 joan-etorri egiten dituzte egunero, hau da, batez besteko 3,1 joan-etorri 7 urtetik gorako biztanle bakoitzeko. Araban bizi diren pertsonen 999.419 joan-etorri sortzen dituzte egunero; Bizkaian bizi direnek, 3.581.561 joan-etorri, eta Gipuzkoan bizi direnek, 1.919.297. Joan-etorrien % 44,9 oinez egiten dira, % 37,2 autoz eta % 13,0 garraio kolektiboan (% 7,2 autobusez eta % 5,9 trenez). Joan-etorrien % 1,7 baino ez dira multimodalak. Joan-etorrien % 29,9 lanagatik egiten dira, % 22,0 aisialdiagatik eta % 17,4 kudeaketengatik. Ikasketek batez besteko lanegun batean izandako mugimenduen % 12,0 eragiten dute; ondoren, erosketak daude (% 11,4) eta gainerako % 7,3 beste arrazoi batzuek eragiten dute.

Aurkeztutako emaitzetatik ateratzen dugun lehen ondorioa da pertsonen mugikortasunak bere azken urteetako joera aldatu duela, eta behera egin duela; izan ere, hautemandako joan-etorri kopurua 205.587 unitatetan murriztu da 2016ko inkestarekin alderatuta, hau da, % 3 jaitsi da. Beherakada hori Covid-19aren pandemiaren ondoren EAEko biztanleen mugikortasun-jarraibideetan izandako aldaketen ondorioztat hartu behar da. Inkesta-aldian mugikortasunerako administrazio-murrizketarik ez zegoen arren, EAEko biztanleek egindako joan-etorrien bolumenean eragin zuzena izan duten baldintzatzaileak zeuden (adibidez, eskola-kirolaren geldialdia, telelanarekin jarraitzea, banakako konfinamenduak, etab.). Joan-etorrien bolumenaren murrizketa horren frogak da, izan ere, lekualdatzen diren pertsonen egunero joan-etorri gutxiago egiteaz gain, lekualdatzen ez diren pertsonen ehunekoa nabarmen hazi da: 2016ko % 11,6tik 2021eko % 26,2ra.

Banaketa modala (garraiobide bakoitzak mugikortasun-ohituretan duen barneratzea) da mota honetako azterketetan interes handiena sortzen duen alderdietako bat. Oro har, mugikortasun-eskemak aldaketa gutxi izan ditu ikuspegi horretatik, baina portaera-aldaketak daude joan-etorrien lurralde-eremuaren arabera. Nolanahi ere, ikuspegi orokor batetik, ondoriozta daiteke automobilak protagonismoa irabazi duela motorrik gabeko moduen kaltetan (oinetz eta bizikletaz), eta % 37,2ko barneratze-kuota lortu duela 2016an zuen % 35,2arekiko; oinezkoen joan-etorriak, berriz, joan-etorri guztien % 47,0tik % 44,9ra jaitsi dira. Hala ere, oinez egindako joan-etorriek nagusi izaten jarraitzen dute, batez ere udalerri barruko eremuan, % 63,5eko kuota lortu baitute, nahiz eta 2,3 puntu galdu duten pandemiaren aurreko egoerarekiko. Nabarmenezkoa da, halaber, udalerri barruan trenaren pisua ehuneko 0,3 puntu igo dela. 2016. urtearekiko igoera bada ere, kontuan hartu behar da aldi horretan Euskotrenen 3. linea jarri dela martxan, Bilboko udalerri barruko ibilbideak ahalbidetzen dituen, eta, beraz, mugikortasun-baldintzatzaileak gabeko egoera batean, igoera askoz handiagoa izango zela pentsatu behar da. Kontuan hartuta joan-etorri gehienak udalerrira iristen direla eta ibilgailu pribatua gero eta gehiago sartzen ari dela, arreta berezia jarri behar da ibilbide horietan automobilaren erabilera murriztean, garraio publikoaren eskaintzari balioa emanez eta indartuz, baita berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburuekin bat datozen beste neurri osagarri batzuk ezartzean ere. Eskualde bereko udalerrien arteko joan-etorrietan herritarrek duten portaera aztertuz gero (hiriburuen eta metropoli-eremuen artean sortzen diren fluxuetan arreta berezia jarritz), azpimarratzekoa da gizartearen automobilaren erabilera, joan-etorrien % 57,7 horrela burutzen baitira. 2016aren aldean ehuneko 2,0 puntuko murrizketa egon den arren, oraindik ere oso barneratze handia izaten jarraitzen du. Pertsonen mugikortasuna eskualde-mugen barruan (udalerri barruko eta eskualde barruko joan-etorriak) EAEko eguneroko

desplazamendu guztien % 86,0 da, eta, beraz, garraio pribatua murrizteko neurriak kolektibo horretara bideratu beharko lirateke.

Mugikortasunari dagokionez, jokabide-aldaketa bat ikusten da lurralde arteko joan-etorrietan: automobilaren kuota ehuneko 4,6 puntu igo da 2016aren aldean, eta garraiobide kolektiboen erabilera beherakada handia izan da: autobusaren erabilera % 5,4 da, eta trenarena % 2,1 (2016ko % 7,9 eta % 5,6ren aldean, hurrenez hurren).

Joan-etorriak eragiten dituzten arrazoiei dagokienez, nahiz eta azken azterketa-aldiko hierarkiari eutsi, jada aipatutako pandemiaren ondorioekin zerikusia duten aldaketa esanguratsuak izan dira. Aisialdia ehuneko 4,3 puntu jaitsi da bidaiak sortzeko arrazoi gisa: 2021ean, bost bidaiatik batek aisialdia izan du helburu, eta 2016an, berriz, lautik bat zen. Ikasketek ere behera egin dute bidaiak sortzeko ahalmenari dagokionez, % 13,5etik % 12,0ra, hezkuntza-eredu hibridoak ezartzearen ondorioz. Kudeaketek gizartean duten eragina ere murriztu egin da, joan-etorrien % 17,4 eragin baitituzte (2016an, berriz, % 20,2), eta hori hainbat aldaketaren ondorioz azal daiteke: administrazio publikoen atari elektronikoetan zerbitzu berriak sartzea, kudeaketa medikoetarako telefono-zitazioekin jarraitzea, besteak beste.

Dokumentu honetan azaldu diren datuek berretsi egiten dituzte mota honetako ikerketetan eta denboran zehar behin eta berriz agertzen diren alderdi batzuk, eta horien artean hainbat garraiobiderako sarbideri dagokionez sexuaren arabera dagoen alde handia nabarmendu behar da. Izan ere, gizonetako gehiago jotzen dute motordun garraiobideetara, eta emakumeetako, aldiz, garraio publikoa erabiltzen dute gehien. Banakako motordun garraiobideak (automobila eta motozikleta) gizonen joan-etorrien ia erdia dira (% 46,0), baina emakumeek motorrik gabeko garraiobideak erabiltzen dituzte joan-etorri gehienetan (% 52,1 oinez edo bizikletaz, garraio pribatu motordunaren % 29,8ren aldean). Jokabide-desberdintasun horiek genero bakoitzerako nagusi den lurralde-eremuak azaltzen ditu, hein batean. Emakumeek ibilbide laburragoko joan-etorriak egiteko joera dute: % 72,0 udalerrri barruko joan-etorriak dira, gizonen baino ehuneko 9,0 puntu gehiago. Hala ere, eskualdez gaindiko joan-etorriak aztertuta (lurralde barrukoak, lurralde artekoak eta kanpokoak), emakumeen desplazamenduen % 11,0 baino ez dira, gizonen kasuan baino ehuneko 6,0 puntu gutxiago. Errepikatzen den beste patroi bat joan-etorrien motibazioa da, eta ikerketak erakusten du zaintzarekin lotutako jarduerak gehiago egokitzen zaizkiela emakumeei (laguntza eta erosketen eta etxeko eta familiako kudeaketen intzidentzia ehuneko 7 puntu handiagoa da gizonen kasuan baino).

Lurralde Historiko bakoitzaren portaerak, barne joan-etorriak kontuan hartuta, orain arte deskribatutakoari erantzuten dio oro har, nahiz eta hiru lurraldeetako bakoitzerako zenbait alderdi nabarmendu daitezkeen. Araban, nahiz eta oraindik ere oinezko mugimendu-tasarik handiena duen, ehuneko 10,6 puntuko beherakada erregistratu da 2016aren aldean, orduan guztizkoaren % 55,1 baitzen. Hala ere, bizikletak ez du beherakada hori izan, eta antzeko balioetan mantendu da.

Bizkaiaren kasuan, garraiobide ez-motordunak % 52,2ra iritsi dira, 2016ko balioa zertxobait hobetuz, eta oinezko moduak barneratze handiena duen lurraldea dela nabarmenduz: % 51,5. Trena % 8,7ra iritsi da, baina indarra galdu du 2016arekin alderatuta, nahiz eta 3. linearen zerbitzu berria martxan jarri den. Bilbo Handitik

kanpo, Durangaldea da bidaiak erakartzeko gaitasun handiena duen eskualdea, aurreko urteekin alderatuta aldaketarik izan gabe.

Gipuzkoa da ibilgailu pribatuarekiko mendekotasun handiena duen lurraldea, joan-etorrien % 39,9 automobileraz egiten baitira. Lurralde horretan, eskualde bakoitzeko joan-etorrien kopurua beste bi Lurralde Historikoetakoak baino handiagoa da, hiriburuan gutxien zentralizatutako biztanleria-egituragatik. Ezinbestekoa da garraio publikoaren azpiegitura hobetzea, autoaren erabilera saihestu ahal izateko.

Beraz, esan daiteke azterketa honen ondorio nagusietako bat dela, batez ere mugikortasunaren iraunkortasunaren ikuspegitik, desplazamendu-kopuruak azken urteetako goranzko joera aldatu duela, COVID-19aren ondorioengatik eta ibilgailu pribatuaren erabilera handitu delako. Datozen urteetako bilakaera aztertu beharko da, aldaketa zirkunstantziala den edo ibilgailu pribatuaren erabilera eragozten duten neurri berriak aplikatu behar diren ikusteko, garraio kolektiboa gehiago erabil dadin.

C. DISEINU METODOLOGIKOA

Kapitulu honetan, mugikortasunari buruzko inkestarekin lotutako alderdi metodologiko nagusiak aurkeztuko dira, eta estatistika-eragiketa diseinatzeko prozesua eta huraosatzen duten prozedurak deskribatuko dira.

«Mugikortasunari buruzko Inkesta» (010930) Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen mugikortasuna kuantifikatzea eta joan-etorrien ezaugarriak eta arrazoiak zehaztea helburu duen estatistika-eragiketa da.

«Mugikortasunari buruzko Inkesta» 2019-2022 Euskal Estatistika Planaren ekainaren 27ko 8/2019 Legean araututako eragiketa da. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 26ko 4/1988 Legearen 7. eta 10. artikuluen arabera, nahitaezkoa da laginean hautatutako familien eta pertsonen erantzuna.

«Mugikortasunari buruzko Inkestak» EAEko etxeetan bizi diren pertsonen buruzko informazioa biltzea dakar. Bilketa hori 2021eko urritik 2022ko martxora bitartean egin da. Laginaosatzen duten etxebizitza guztiekin jarri gara harremanetan, eta etxe horietan bizi diren 7 urte eta gehiagoko pertsona guztiei buruzko informazioa bildu dugu.

C.1 Laginaren diseinua

Inkestaren ezaugarri metodologiko nagusiak honako hauek dira:

- 2019-2022 Euskal Estatistika Planean ezarritakoaren arabera, inkesta hori gauzatzeko ardura Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak du, Eustaten lankidetzarekin, eragiketaren lagin-diseinuari eta jasotze-prozesuari dagokienez.
- Eragiketaren laginaren esparrua Euskal Autonomia Erkidegoan eta bertako Lurralde Historikoetan bizi diren familia eta pertsona guztiek osatzen dute. Etxebizitza titularren eta ordezkoen eskemari jarraitzen ez diogunez, inkestatu beharreko etxebizitzaren kopuru handiagoa zehaztu da: 7.001 unitate. Lagin osoa geruzetan banatzeko modua lagin teorikoaren banaketan oinarrituko da, lehenik eta behin, eta hazkunde-faktorea berdina izango da geruza guztientzat (% 40).
- Lagina okupatzaileen ezaugarrien arabera orekatuta dago Lurralde Historikoetan eta eskualdeetan.

Hurrengo taula honetan, esleipenaren emaitzak aurkezten dira, aipatutako irizpideen arabera.

Taula 63. Etxebizitzen ezarpena: esleipen prozesuaren emaitzak

Irizpide geografikoa	Etxebizitzak	Esleipena	Minimoak	Gainlagina
Total	901.501	5.000	5.000	7.001
Araba	137.295	1.161	1.161	1.622
Gipuzkoa	292.779	1.696	1.696	2.371
Bizkaia	471.427	2.143	2.143	3.008
Añana	2.341	76	100	140
Arabako Lautada (Gasteiz gabe)	6.567	128	128	179
Arabako Mendialdea	1.396	59	100	140
Arabako Errioxa	4.482	106	106	148
Gorbeialdea	3.408	92	100	140
Arabako Kantaurialdea	13.885	186	186	260
Vitoria-Gasteiz	105.216	512	439	615
Bidasoa Beherea	3.408	182	182	255
Debarrena	23.169	134	134	188
Debagoiena	25.780	149	149	209
Donostialdea (DONOSTIA gabe)	58.944	341	341	477
Goierri	27.231	157	157	220
Tolosa	19.581	113	113	158
Urola Kosta	29.213	169	169	237
Donostia-San Sebastián	77.453	448	448	627
Arratia-Nerbioi	9.549	44	100	140
Bilbo Handia (BILBO gabe)	211.065	962	880	1.232
Durangaldea	39.290	179	164	230
Enkartzioak	12.856	59	100	140
Gernika-Bermeo	19.172	87	100	140
Markina-Ondarroa	10.518	48	100	140
Plentzia-Mungia	22.638	103	94	132
Bilbo	146.339	667	610	854

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

Eremu geografiko batzuetan (Añana, Arabako Errioxa, Gorbeialdea, Arratia-Nerbioi, Bilbo Handia, Enkartzioak, Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa, Bidasoa Beherea, Debarrena, Debagoiena, Donostialdea, Goierri, Tolosa, Urola Kosta eta Bilbo) aurreikusitako inkestatutako etxebizitza-kopuruaren kuotak lortu ez zirenez, Eustatek hautatutako lagina handitu zen, eragiketaren hasierako laginerako lehen adierazitako irizpide berberekin.

Azkenik, hurrengo taulan eskualde bakoitzean eta 3 lurralde-hiriburuetan inkestatutako etxeak ikus daitezke, baita horien erreferentzia-unibertsoa ere (jasotako etxebizitzak).

Taula 64. Etxebizitzaren ezarpena: eremuen arabera sailkapena

Balio absolutuak		Inkestatutako etxebizitzak	Jasotako etxebizitzak
Guztira		5.261	896.531
Bizileku den lurraldea	Araba	1.239	135.065
	Gipuzkoa	1.798	294.081
	Bizkaia	2.224	467.385
Bizileku den eskualdea	Añana	103	2.355
	Arabako Lautada (GASTEIZ gabe)	136	6.612
	Arabako Mendialdea	104	1.441
	Arabako Errioxa	109	4.489
	Gorbeialdea	105	3.405
	Arabako Kantaurialdea	195	13.777
	Vitoria-Gasteiz	487	102.986
	Bidasoa Beherea	183	31.844
	Debabarrena	142	23.113
	Debagoiena	158	25.451
	Donostialdea (DONOSTI gabe)	359	59.312
	Goierri	159	27.396
	Tolosa	119	20.028
	Urola Kosta	179	29.605
	Donostia-San Sebastián	499	77.332
	Arratia-Nerbioi	101	9.678
	Bilbo Handia (BILBO gabe)	908	208.131
	Durangaldea	173	39.550
	Enkartzioak	106	12.385
	Gernika-Bermeo	105	18.751
	Markina-Ondarroa	99	10.476
	Plentzia-Mungia	103	22.976
	Bilbo	629	145.438

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Hurrengo taulan, inkestatutako 5.261 etxebizitzetako biztanleei buruzko informazioa ematen da, eskualdearen arabera. Pertsona horien alderdi soziodemografikoei buruzko informazioa jaso da, bai eta horiek ordezkatzan dituzten gizabanakoen kopuruari buruzkoa ere (jasotako banakakoak).

Taula 65. Biztanleriaren ezarpena: eremuen arabera sailkapena

Balio absolutuak		Inkestatutako etxebizitzetako norbanakoak	Jasotako pertsonak
Guztira		12.233	2.173.460
Bizileku den lurraldea	Araba	2.836	327.437
	Gipuzkoa	4.177	712.941
	Bizkaia	5.220	1.133.081
Bizileku den eskualdea	Añana	238	6.137
	Arabako Lautada (GASTEIZ gabe)	316	17.475
	Arabako Mendialdea	220	3.019
	Arabako Errioxa	252	11.532
	Gorbeialdea	264	8.785
	Arabako Kantaurialdea	450	34.600
	Vitoria-Gasteiz	1.096	245.889
	Bidasoa Beherea	443	76.498
	Debarrena	319	55.388
	Debagoiena	361	62.484
	Donostialdea (DONOSTIA gabe)	848	145.810
	Goierri	390	68.262
	Tolosa	286	49.130
	Urola Kosta	437	76.255
	Donostia-San Sebastián	1.093	179.114
	Arratia-Nerbioi	245	23.618
	Bilbo Handia (BILBO gabe)	2.128	510.707
	Durangaldea	417	98.785
	Enkartzioak	245	31.265
	Gernika-Bermeo	247	45.341
	Markina-Ondarroa	245	25.758
	Plentzia-Mungia	260	56.968
	Bilbo	1433	340.639

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Bukatzeko, atal honetako azken taulan eskualdeka sailkatzen dira inkestaren xede den biztanleria (7 urteko eta gehiagoko pertsonak) eta erreferentziazko unibertsoan dagokien ordezkariak.

Taula 66. 7 urte eta gehiagoko biztanleriaren ezarpena: eremuen arabera sailkapena

Balio absolutuak		Inkestatutako etxeetako norbanakoak	Jasotako pertsonak
Total		11.606	2.059.183
Bizileku den lurraldea	Araba	2.679	308.212
	Gipuzkoa	3.992	674.953
	Bizkaia	4.935	1.076.018
Bizileku den eskualdea	Añana	231	5.937
	Arabako Lautada (GASTEIZ gabe)	300	16.586
	Arabako Mendialdea	210	2.877
	Arabako Errioxa	234	10.695
	Gorbeialdea	250	8.317
	Arabako Kantaurialdea	424	32.655
	Vitoria-Gasteiz	1030	231.145
	Bidasoa Beherea	421	71.855
	Debabarrena	304	52.348
	Debagoiena	347	59.362
	Donostialdea (DONOSTIA gabe)	811	138.119
	Goierri	371	64.582
	Tolosa	275	47.193
	Urola Kosta	420	72.690
	Donostia-San Sebastián	1043	168.803
	Arratia-Nerbioi	233	22.506
	Bilbo Handia (BILBO gabe)	2017	486.130
	Durangaldea	393	93.372
	Enkartzioak	229	29.413
	Gernika-Bermeo	235	43.155
	Markina-Ondarroa	227	24.055
	Plentzia-Mungia	248	54.529
	Bilbo	1353	322.858

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

C.2 Galdetegiaren diseinua

2016ko mugikortasun-inkestan erabilitako galdetegiak erreferentzia izan dira 2021eko datuak biltzeko galdetegiak prestatzeko. Galdesortan beste bi galdera gehitu dira, telefono mugikorraren eskuragarritasunari buruzkoak eta inkestatutako pertsonak joan-etorriak egiten dituenean gailua aldean daraman ala ez.

Galdetegian aztertutako aldagaiak pertsonen alderdi soziodemografikoekin lotutakoak dira (sexua, adina, bizilekua, jarduerarekiko harremana, familia mota), baita egindako joan-etorriekin lotutakoak ere (joan-etorriaren arrazoia, erabilitako garraibidea, egindako etapa kopurua eta joan-etorriaren iraupena).

C.3 Informazioa biltzeko prozedura

Informazio-bilketa lagina osatzen duten etxebizitza guztiei egindako elkarrizketen bidez egin da, eta etxebizitzan bizi diren 7 urte eta gehiagoko pertsona guztiei buruzko informazioa bildu da.

Informazioa informatzaile baten edo gehiagoren bitartez bildu da, betiere eskatutako informazioaren fidagarritasuna bermatuz.

Taulan, inkestatutako 5.261 etxebizitzetan zenbat pertsonari buruzko informazioa bildu den adierazten da, sexuaren, adinaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 7 urtetik beherako biztanleriari ez zaio inkestarik egin, baina etxe-unitatearen osaeraren parte da.

Taula 67. Inkestatutako etxeetako pertsonak sexuaren, adinaren eta Lurralde Historikoaren arabera

Balio absolutuak		Guztira	Bizileku den lurraldea		
			Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
GUZTIRA		12.233	2.836	4.177	5.220
Sexua	Gizona	5.961	1.406	2.039	2.516
	Emakumea	6.272	1.430	2.138	2.704
Adina	7 urte baino gutxiago	627	157	185	285
	7-19	1.573	361	585	627
	20-44	3.030	690	1.021	1.319
	45-64	4.084	961	1.365	1.758
	65 eta gehiago	2.919	667	1.021	1.231

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Galdetegiak telefono bidezko elkarrizketa edo etxebizitzan bertan aurrez aurre egindako elkarrizketen bidez bete dira.

Landa-lana 2021eko urritik 2022ko martxora bitartean egin da. Inkestak astelehenetik ostiralera egin dira, betiere inkesta egin aurreko eguna erreferentziazat hartuta, astelehenak izan ezik, aurreko asteko osteguna hartzen baitzen. Gauza bera gertatu da inkestaren aurreko eguna jaieguna izan denean, datuak bildu aurreko laneguna hartu baita erreferentziazat. Informazioa biltzearekin batera, baliozkotze- eta kodifikazio-lanak egin dira.

Hurrengo taulan, asteko erreferentzia-egun bakoitzean inkestatutako etxeen kopurua jasotzen da, baita egun horretan nagusi izandako eguraldia ere.

Taula 68. Inkestatutako etxeak erreferentziako asteko egunaren, meteorologiaren eta lurraldearen arabera

Balio absolutuak		Guztira	Bizileku den lurraldea		
			Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
GUZTIRA		5.261	1.239	1.798	2.224
Erreferentziako asteko eguna	Astelehena	1.011	238	359	414
	Asteartea	1.071	270	354	447
	Asteazkena	1.041	266	318	457
	Osteguna	2.138	465	767	906
Metereologia nagusia	Oskarbi	1.668	411	513	744
	Hodeiak eta ostarteak	892	234	293	365
	Estalita	955	258	329	368
	Euritsu	1.680	304	727	649
	Bestelakoa	66	32	20	14

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2021. urtea

Datuen konfidentzialtasuna bermatzen dute Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (EB 2016/679), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, pertsona fisikoak babesteari buruzkoak.

Lortutako informazioa helburu estatistikoetarako baino ez da erabiltzen, eta hura tratatzean eta erabiltzean ezin da inolako daturik identifikatu inkestan parte hartzen duten pertsonekin. Datu pertsonalak ez dira inola ere tratatzen edo lagatzen, eta ez dira ez zuzenean ez zeharka zabaltzen edo argitaratzen.

C.4 Monetika-datuen tratamendua

Monetikako datuak jatorri eta helmugako udalerrietan garraio publikoan gertatzen diren erlazioak lortzeko erabili dira. Operadoreei buruz eskura dagoen informazioak honako hauek biltzen ditu: balidazioak egiteko erabiltzen diren txarteletako bakoitzaren datuak, lineen datuak eta, erabilgarri egonez gero, zer ibilbideri dagokion (autobusen kasuan, adibidez), eta txartel hori baliozkotu den igoera-geralekua. Jaitsieran balidazioa beharrezkoa den garraiobideetan ere erregistratu egiten da.

Informazio horretatik abiatuta, jatorri-helmuga erlazioak udalerriko eta garraiobideen arabera lortu ahal izateko, lehenik eta behin, lortutako erregistroak joan-etorri guztietara jaso behar dira, kontuan hartuta kasuistika guztia ez dagoela monetikan jasota: partzuergokoak ez diren tituluak edo txartel arruntak, adibidez. Datu horiek jaso ondoren, joan-etorrien guztizko bolumena lortzen da.

Igoera- eta jaitsiera-geltokian oinarrituta, udalerria esleitzen, da eta garraio publikoan gertatzen diren erlazio guztiak lortzen dira, jatorriaren, helmugaren eta garraibidearen arabera. Jaitsiera baliozkotu den geltokia ez dagoen kasuetan, helmugako udalerria hainbat metodologia erabiliz kalkulatzen da.

C.5 Telefonía mugikorrek datuen tratamendua

Telefonia mugikorretik datozen datuak tratatu egin behar izan dira, azkenik, udalerri mailako jatorri-helmuga erlazio guztiak lortzeko. Eskura zegoen informazioa, hasieran, gailu mugikorra joan-etorriaren hasieran eta amaieran konektatuta dagoen antenaren arabera taldekatuta zegoen.

Lehenik eta behin, antena bakoitza eremu edo eskualde probable bati esleitu behar zaio. Hori prozesu matematiko baten bidez lortzen da: Voronoi izenez ezagutzen den lurraldearen segmentazio-algoritmo baten bidez. Voronoiko poligonoek antenaren kokapena eta alboko antenak hartzen dituzte kontuan gainazal handieneko poligonoa deskribatzeko, gainerakoetan eraginik izan gabe. Voronoiko poligonoak ez dira garraio-zonakatze baten ondorio, eta, beraz, beharrezkoa da bihurtzea bat egitea. Bihurtzea hori Ingartek enpresak garatutako beste algoritmo baten bidez egiten da. Algoritmo horretan, poligono bat zatitzen da gainjartzen den administrazio-atalen artean. Horrela, Voronoiko poligono bakoitzaren % 100 portzentaje jakin batean banatzen da, eremu horien artean. Horrek esan nahi du antenan jatorria edo helmuga duten bidaiak aurretik identifikatutako zerrenda horren arabera banatuko direla.

Erregistro bakoitzari jatorrizko eta helmugako udalerriak esleitu ondoren, datuak jaso egin dira, datuak eman dituzten telefono-konpainiek estaltzen duten merkatu-kuotaren arabera, biztanleria osoa ordezkatzeko. Puntu honetan, EAEko lekuren batean jatorria eta/edo helmuga duten biztanleek egindako joan-etorrien guztizkoa daukagu.

EAEtik kanpoko udalerriak «EAEtik kanpo» gisa multzokatu dira, eta eskualde bereko 5.000 biztanletik beherako udalerriak eskualdearen izenpean. Horrela, dauden erlazioen izena murriztu egin da.

Jatorrien eta helmugen behin betiko zerrenda lortu ondoren, koefiziente zuzentzaile bat aplikatu da hainbat aldagairen arabera (biztanleria, eremuaren tipologia, garraio publikoari buruzko datuak, etab.), sortutako edota jasotako joan-etorrien fluxua errealtatera egokitzen dela ziurtatzeko.

C.6 Jasotze prozedurak

Gizabanakoak erreferentziazko biztanleria-esparrura (banakoak eta familiak) jasotzeko prozesuaz gain, inkestan ikusitako joan-etorriei buruzko doikuntzak ere aplikatu dira, garraio-operadoreek lanegunetako bidaiariei buruz emandako informazioarekin (2021ean eskuragarri) eta hiru Lurralde Historikoetako erakunde arduradunek emandako monetika-datuarekin. Horrez gain, telefonia mugikorrek datuen tratamenduko informazioa erabili da zuzenketa doituagoak egiteko.

Informazio horrek guztiak, aurreko eragiketen emaitzekin batera, zuzenketa batzuk eragiten ditu hasierako jasotzailean, eta hori izan da azkenean informazioa ustiatzeko

erabili dena. Jarraian koefiziente horiek kalkulatzeko erabili diren irizpide orokorrak deskribatuko dira.

C.6.1 Garraio publikoa

Jasotako gizabanakoen koefiziente zuzentzailea kalkulatzeko eta garraio publikoan egin diren joan-etorriak lortzeko, monetika-datuak erabili dira. Garraio publikoko operadore bakoitzarentzat 10.000 biztanletik gorako udalerri bakoitzean jatorria duten joan-etorrien kopurua kalkulatu da. 10.000 biztanletik beherako udalerrien kasuan, eskualdearen eta operadorearen arabera taldekatu dira. Joan-etorrien guztizko kopurua kalkulatu ondoren, operadore bakoitzaren erlazioetako bakoitza jaso egin da jatorriko udalerri edo eskualde bakoitzeko.

C.6.2 Gainerako garraiobideak

Jasotako banakoen koefiziente zuzentzailea kalkulatzeko eta gainerako garraiobideetan egin diren joan-etorriak lortzeko, telefonia mugikorreko datuak erabili dira. Jatorri-helmuga konbinazio bakoitzerako joan-etorrien kopurua kalkulatu da. 10.000 biztanletik beherako udalerriak eskualdeka taldekatu dira. Guztizko balio horiei garraio publikoko erlazio berberetarako lortutako balioak kendu zaizkie, beste modu batzuen bidez egindako joan-etorri guztiak lortzeko.

C.7 Terminoen glosarioa

Jarraian, txostenean erabili diren termino eta esamolde batzuen definizioa ematen da, dokumentua errazago ulertzeko.

Metropoli-eremua: euren artean erlazio ekonomiko eta sozial maila altua erregistratzen duten udalerri askok osatutako eremu geografikoa. Txosten honetan, Eustatek 2021ean ezarritako hiru Lurralde Historikoetako hiriburuei lotutako metropoli-eremuak hartu dira kontuan: Bilbo Handia, Donostialdea eta Arabako Lautada.

Eskualdea: udalerrien multzokatzea erlazio geografiko eta funtzionalen arabera. Txosten honetan, Eustatek 2021ean EAErako ezarritako eskualdeen zerrenda ofiziala hartzen da kontuan.

Udalerria: udal batek zuzentzen duen jurisdikzio-eremu bereko biztanle-multzoa. Txosten honetan, Eustaten EAEko udal-banaketa ofiziala (2021. urtea) erabili da.

Familia-unitatea: etxebizitza nagusi batean bizi ohi diren pertsonen guztizkoa, haien arteko ahaidetasuna edozein dela ere.

Joan-etorria: helburu edo arrazoi batengatik pertsona batek jatorrizko leku batetik helmugako leku batera egiten duen mugimendua. Txosten honetan joan-etorri gisa hartu da edozein garraio motordunekin egindako edozein mugimendu, bai eta 5 minututik gorako iraupena duten oinez egindako mugimenduak ere. Joan-etorri bakoitza arrazoi bakar bati lotzen zaio. Arrazoi-aldaketa orok beste

joan-etorri berria dakar. Horregatik, joan-etorri baten jatorrizko lekura itzultzea ez da hasierako joan-etorria, baizik eta joan-etorri berri bat.

Joan-etorriaren etapa: garraiobide batean edo operadore beraren zerbitzu desberdinetan egindako joan-etorriaren zati bakoitza. Desplazamendu oro etapa batez edo gehiagoz osatuta dago. Ez da etapatzat hartu garraio publikora oinez sartzeara edo itzultzea.

Joan-etorriaren jatorria: joan-etorria hasten den tokia da.

Joan-etorriaren helmuga: bidaiaren arrazoi nagusia asetzen den tokia da.

Udalerri barruko joan-etorria: udalerri berean jatorria eta helmuga duen joan-etorria, hau da, herri beraren barruan egiten dena.

Eskualde barruko joan-etorria: jatorria eta helmuga eskualde berean dituen joan-etorria da. Eskualde barruko joan-etorrien tauletan ez dira sartzen udalerri barrukoak, bereizita aztertzen baitira.

Lurralde barruko joan-etorria: jatorria eta helmuga Lurralde Historiko berean dituen joan-etorria. Lurralde barruko joan-etorrien tauletan ez dira sartzen eskualde barrukoak eta udalerri barrukoak, bereizita aztertzen baitira.

Lurralde arteko joan-etorria: helmuga jatorriko Lurralde Historikoa ez besteko lurralde batean duen joan-etorria.

Kanpoko joan-etorria: EAEko edozein toki geografikoren eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko beste edozein lekuren arteko joan-etorria da.

Mugikortasun okupazionala: lan-arrazoiengatik joan-etorriak, bai noizbehinkako laneko gaiak garatzeko, bai ohiko lana eta ikasketak gauzatzeko.

Erosketak: epigrafe honetan sartzen dira ondasunak edo produktuak erosteko egiten diren joan-etorriak, bai familia-unitatearen etxeko kontsumorako, bai pertsonaren kontsumo indibidualerako.

Kudeaketak: epigrafe honetan sartzen dira zuzeneko ordainsaririk gabeko jarduerak, hala nola: beste pertsona bati laguntzea, etxeko kudeaketak egitea eta kudeaketa pertsonalak (baita mediku-kudeaketak ere).

Aisia: atal honetan, jolas-, kultura- edo kirol-jarduerak egiteko egiten diren joan-etorriak jasotzen dira. Atal honetan jarduera hauek sartzen dira: zinemara joatea, erakusketetara joatea, txangoak egitea...

Beste batzuk: atal honetan jasotzen dira beste etxebizitza batera egiten diren joan-etorriak eta beste edozein arrazoiengatik egiten direnak.

Garraiobidea: joan-etorriaren etapa bakoitzean erabilitako garraio-sistema. Txosten honetan, hurrengoak hartu dira kontuan: oinez, bizikleta, ibilgailu pribatua (gidari edo bidaiari gisa, taxia ere barne hartuta), motozikleta, errepideko garraio kolektiboa (hiri-autobusa, hiriarteko autobusa), trenbideko garraio kolektiboa (trena, metroa, tranbia), autobus-zerbitzu pribatua, hegazkina eta beste batzuk (transbordadoreak, igogailuak, funikularra, itsasontzia...).

Garraiobide motordunak: trakzio-sistema propioa duten eta propulsiarako kanpoko energia-iturriak erabiltzen dituzten garraiobideak dira. Definizio horren barruan sartzen dira autoa, motozikleta, hiri-autobusak, hiriarteko autobusak, autobus-zerbitzu pribatuak, trena, tranbia, metroa, itsasontzia eta hegazkina.

Garraiobide ez-motordunak: propulsiarako kanpoko iturririk erabiltzen ez duten garraiobideak dira: oinezko modua eta bizikleta.

Beste garraiobide batzuk: bigarren mailako garraiobide motordunak dira: ordainpeko igogailuak, funikularra, zubi esekia, itsasontzia eta beste batzuk.

Garraiobide kolektiboak: dokumentu honetan, honako hauek bereizten dira: errepide bidezko garraiobide kolektiboak (hiri-autobusa, hiriarteko autobusa eta autobus-zerbitzu pribatua barne), trenak, tranbiak eta metroak osatutako trenbide bidezko garraiobideak eta hegazkina. Garraio-zerbitzu publiko eta pribatuak barne hartzen ditu, hala nola autobus-zerbitzu pribatua.

Banakako garraiobidea: dokumentu honetan izaera pribatukoak sartzen dira: automobila, motozikleta eta autoa.

Garraiobide multimodala: etapa bakoitzean garraiobide desberdinen erabilera duten joan-etorriak sartzen dira (oinez-hiri autobusa, oinez-metroa...). Ontzi aldaketa duten joan-etorrien kasuan, eta joan-etorriaren etapa bat operadore batekin egiten bada, eta bigarren etapa operadore beraren beste zerbitzu batekin egiten bada, ez da multimodaltzat hartzen, garraiobide berdina izaten jarraitzen baitu.

**D. MUGIKORTASUN-EREDUETAN IZANDAKO
ALDAKETEN AZTERKETA, TELEFONIA MUGIKORREKO
DATUEN AZTERKETATIK ABIATUTA**

D.1 Sarrera

Telefonia mugikorreko datuetan jasotako informazioari esker, EAEren barruan dauden mugikortasun-fluxuen ezaugarriak zehaztu daitezke, baita EAEren eta kanpoaldearen arteko fluxuenak ere. Telefonia mugikorrak egun batean gertatzen diren jatorri-helmuga harreman guztiak xehetasunez ezagutzeko aukera ematen du.

Telefonia mugikorreko datuen azterketei esker, aldaketak detektatu daitezke biztanle guztien mugikortasun-ereduetan. Egunean milioi bat joan-etorri izan dira lau astetan, eta Estatuan, guztira, linea mugikorraren hamasei milioi erabiltzaile. Horrek esan nahi du aztertutako egun bakoitzeko 100GBtik gorako datu gordinak prozesatu direla, eta, beraz, Big Data azpiegitura bat behar izan da.

Azterketa hau 2021ean EAEko etxeetan egindako mugikortasunari buruzko inkestatik lortutako emaitzen azterketaren barruan kokatzen da. Inkesta horretan, EAEko herritarren neguko batez besteko lanegun bateko mugikortasuna aztertzen da. Udaren eta neguaren artean herritarren mugikortasun-jokabideetan alde nabarmenak daudenez, txosten honetan konparazio bat egiten da neguko eta udako batez besteko lanegun bateko telefonia-datuen artean. Gainera, egun motak (laneguna den edo ez) EAEko mugikortasun-ereduetan duen eragina aztertzen da.

Horrela, betiere neguko datuak erreferentziatzat hartuta, analisia egin ostean agertzen diren desberdintasun nabarmenak aztertzen dira: bidaia-bolumena aldatzea, jatorri-helmuga banaketak aldatzea, etab. Konparazio hori joan-etorriaren berezko faktoreetara mugatzen da soilik (jatorria, helmuga, ordua, erabilitako operadorea, besteak beste).

Txosten honen irismentetik kanpo geratzen da motibazioetan eta joan-etorrien profil soziodemografikoan izandako aldaketak aztertzea, informazio hori mugikortasunari buruzko inkestatik baino ez datorrelako, eta, beraz, neguko batez besteko lanegunerako soilik dago eskuragarri.

Azterketa honetarako erabiltzen diren datuak aldeztatik tratatu dira biztanleria osoa irudikatzeko; izan ere, telefono mugikorraren erabiltzaileen konexio-informazioa soilik eskura daitekeen arren, datuak biztanleria osoaren adierazgarri izan daitezkeen tratatzen dira. Datuak tratatu ondoren, aztertu eta txosten honetan jaso dira.

Oinarrizko kasuaren (neguko batez besteko lanegun bat) eta ordezkari kasuen deskribapena egiten da: udako batez besteko lanegun bat, laneguna ez den neguko egun bat eta laneguna ez den udako egun bat. Azterketa-egoera guztien ezaugarriak behar bezala zehaztu ondoren, azterketako xede diren agertoki guztien arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzen dira.

Kontuan izan behar da txosten honetan joan-etorriei buruz hitz egiten dela, jatorriko eta helmugako puntuak soilik aztertzen direlako, joan-etorri hori zenbat etapatan egin den aintzat hartu gabe.

Gainera, txosten honetan aurkeztzen diren balioak taldekatze-irizpideak betetzen dituen egun bakoitzerako batez besteko joan-etorrien kalkuluaren emaitza dira (hau da, eguneko joan-etorrien batez bestekoa negukoa edo udakoa eta laneguna, larunbata, igandea edo jaieguna den egun bakoitzerako, azterketa-kasuaren

arabera). Horrek aldeak sor ditzake unitate pare baten ordenaren balioetan, batez besteko bakoitzerako hamartarrak biribiltzearen ondorioz.

Kontuan izan behar da aurkezten diren guztizko balioak ez datozela bat 2021ean EAEko etxeetan egindako Mugikortasunari buruzko inkestaren txostenean aurkeztutakoekin, honako arrazoi hauengatik:

- Telefonia mugikorrari buruzko txostenean, datuak eguneko batez besteko balioetatik abiatuta kalkulatzen dira; mugikortasun-inkestaren txostenaren kasuan, berriz, lanegun arrunt baten adierazgarri den egun bakarra aukeratzen da (ez dago herritarren mugikortasun-ohiturak aldatzen dituen gertaera berezirik), eta erreferentzia-egun gisa erabiltzen da.
- Bestalde, inkestak —lagina oso adierazgarria izan arren— ezin ditu lanegun batean gertatzen diren mugikortasun-erlazio guztiak jaso, eta jasota ez daudenez, ezin da mugikortasun osoa islatu inkestaren datuetan oinarrituta.
- Desberdintasun horiek justifikatzen dituen hirugarren faktore bat dago: jatorri-helmuga erlazioa mugikortasun-inkestan jasotzen bada ere, garraio publikoan egindako joan-etorrien erregistroak soilik daude, eta horiek monetika-datuetan oinarrituta tratatu dira, eta ez telefonia-datuetan oinarrituta.

D.2 Oinarrizko kasuaren ezaugarriak: neguko laneguna

Neguko batez besteko lanegun bateko mugikortasuna hartzen da oinarrizko kasutzat; izan ere, azterketa hau 2021ean EAEko etxeetan mugikortasunari buruz egindako inkestatik eratorritako azterketaren barruan sartzen da, eta inkesta horren erreferentzia-esparrua negua da.

Neguko batez besteko lanegun batean, guztira 6.830.572 joan-etorri egiten dira.

Jarraian, jatorriaren, helmugaren eta EAEko lurraldean eskualde mailan gertatzen diren jatorri-helmuga fluxuen arabera zehazten dira joan-etorrien ezaugarriak.


D.2.1 Joan-etorrien azterketa jatorriaren arabera

Mugikortasuna joan-etorriaren jatorriaren arabera aztertuz gero, ikus daiteke neguko batez besteko lanegun batean egiten diren joan-etorrien % 53,9 Bizkaian sortzen direla (3.681.112 joan-etorri), eta hori dela joan-etorriak sortzeko ahalmen handiena duen lurraldea. Gipuzkoak joan-etorrien % 30,1 (2.052.840) sortzen ditu eta Arabak % 15,7 (1.075.651). EAEko joan-etorrien % 0,3k bakarrik du jatorria euskal administrazio-mugetatik kanpo (20.969 joan-etorri).

Joan-etorrien % 45,7 Bilbo Handian hasten dira, % 16,4 Donostialdean eta % 14,1 Arabako Lautadan. Horrek esan nahi du neguko batez besteko lanegun batean egiten diren joan-etorrien % 76,2 hiru Lurralde Historikoetako hiriburuak dauden eskualdeetan hasten direla.

Hiriburuek dagozkien eskualdeetan duten pisua aztertuz gero, alde nabarmenak antzematen dira. Arabako Lautadan sortzen diren joan-etorrien % 98,5 Gasteizen hasten dira; izan ere, eskualdeen artean, horrek du zentralizazio handiena hiriburuan neguko batez besteko lanegun bateko joan-etorriak sortzeari dagokionez. Donostialdearen kasuan, joan-etorrien % 63,9 Donostian sortzen dira, eta, azkenik, Bilbo Handiari dagokionez, eskualde horretan sortutako joan-etorrien % 41,4 Bilbon hasten dira.

Irudia 64. Jatorria hiriburuetako eskualdeetan duten joan-etorrien banaketa, jatorriko udalerriaren arabera. Oinarrizko kasua: laneguna - negua (%)




Iturria: Telefonía mugikorrekoko datuak. Geuk egina

Lurraldeari dagokionez, aldeak antzematen dira lurraldearen arabera. Araba da hiriburuaren eskualdean joan-etorrien kontzentrazio handiena duen lurraldea: Arabako Lautadak Araban hasten den mugikortasunaren % 89,4 (961.580 joan-etorri) sortzen du. Bizkaian antzeko egoera gertatzen da: Bizkaian hasitako joan-etorrien % 84,8 (3.123.034 joan-etorri) Bilbo Handian dute abiapuntua. Hala ere, Gipuzkoaren kasuan, Donostialdeak pisu txikiagoa du (% 54,5, 1.118.613 joan-etorri) neguko batez besteko lanegun batean egiten diren joan-etorriak sortzeari dagokionez.

Taula 69. Joan-etorrien banaketa jatorriko eskualdearen arabera. Oinarrizko kasua: laneguna - negua

Jatorriko eskualdea	Bidaia	%	Lurraldearen %
Añana	7.018	0,1	0,7
Arabako Kantaurialdea	77.152	1,1	7,2
Gorbeialdea	10.976	0,2	1,0
Arabako Lautada	961.850	14,1	89,4
Arabako Mendialdea	3.544	0,1	0,3
Arabako Errioxa	15.111	0,2	1,4
Araba guztira	1.075.651	15,7	100
Arratia-Nerbioi	23.277	0,3	0,6
Durangaldea	247.050	3,6	6,7
Enkartzioak	34.382	0,5	0,9
Gernika-Bermeo	101.819	1,5	2,8
Bilbo Handia	3.123.034	45,7	84,8
Markina-Ondarroa	36.151	0,5	1,0
Plentzia-Mungia	115.399	1,7	3,1
Bizkaia guztira	3.681.112	53,9	100
Debagoiena	124.514	1,8	6,1
Bidasoa Beherea	270.939	4,0	13,2
Debabarrena	162.373	2,4	7,9
Donostialdea	1.118.613	16,4	54,5
Goierri	103.171	1,5	5,0
Tolosaldea	100.352	1,5	4,9
Urola Kosta	172.878	2,5	8,4
Gipuzkoa guztira	2.052.840	30,1	100
EAE guztira	6.809.603	99,7	
EAEtik kanpo	20.969	0,3	
Guztira	6.830.572	100	

Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina

Irudia 65. Joan-etorrien banaketa jatorriaren arabera. Oinarrizko kasua: laneguna - negua

Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina


D.2.2 Joan-etorrien azterketa helmugaren arabera

Mugikortasuna joan-etorriaren helmugaren arabera aztertuz gero, ikusten da neguko batez besteko lanegun batean egiten diren joan-etorrien % 53,3 Bizkaian amaitzen direla (3.638.863 joan-etorri), eta lurralde horrek duela joan-etorriak erakartzeko ahalmen handiena. Gipuzkoak joan-etorrien % 30,9 erakartzen du (2.107.239), eta Arabak, % 15,5 (1.062.126). EAEko joan-etorrien % 0,3k soilik du helmuga euskal administrazio-mugetatik kanpo (22.371 joan-etorri).

Joan-etorrien % 45,0 Bilbo Handian amaitzen dira, % 17,3 Donostialdean, eta % 13,8 Arabako Lautadan. Horrek esan nahi du neguko batez besteko lanegun batean egiten diren joan-etorrien % 76,1 hiru Lurralde Historikoetako hiriburuak dauden eskualdeetan amaitzen dela.

Hiriburuak dagozkien eskualdeetan duten pisua aztertuz gero, alde nabarmenak antzematen dira. Arabako Lautadan amaitzen diren joan-etorrien % 98,5 Gasteizen amaitzen dira; izan ere, eskualdeen artean, horrek du zentralizazio handiena hiriburuan neguko batez besteko lanegun bateko joan-etorriak erakartzeari dagokionez. Donostialdearen kasuan, joan-etorrien % 65,9 Donostian amaitzen dira, eta, azkenik, Bilbo Handiak erakarritako joan-etorrien % 41,7 Bilbon amaitzen dira.

Irudia 66. Helmuga hiriburuetako eskualdeetan duten joan-etorrien banaketa helmugako udalerriaren arabera. Oinarrizko kasua: laneguna - negua (%)




Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina

Lurraldeari dagokionez, aldeak antzematen dira lurraldearen arabera. Araba da hiriburuaren eskualdean joan-etorrien kontzentrazio handiena duen lurraldea: Arabako Lautadak Araban amaitzen den mugikortasunaren % 89,0 (945.472 joan-etorri) jasotzen du. Bizkaian antzeko egoera gertatzen da: Bizkaian amaitutako joan-etorrien % 84,5 (3.075.538 joan-etorri) Bilbo Handian dute helmuga. Hala ere, Gipuzkoaren kasuan, Donostialdeak pisu txikiagoa du (% 55,9, 1.178.978 joan-etorri) neguko batez besteko lanegun batean egiten diren joan-etorriak erakartzeari dagokionez.

Taula 70. Joan-etorrien banaketa helmugako eskualdearen arabera. Oinarrizko kasua. laneguna - negua

Helmugako eskualdea	Bidaiak	%	Lurraldearen %
Añana	6.190	0,1	0,6
Arabako Kantaurialdea	78.576	1,2	7,4
Gorbeialdea	11.379	0,2	1,1
Arabako Lautada	945.472	13,8	89,0
Arabako Mendialdea	3.975	0,1	0,4
Arabako Errioxa	16.534	0,2	1,6
<i>Araba guztira</i>	<i>1.062.126</i>	<i>15,5</i>	<i>100</i>
Arratia-Nerbioi	24.156	0,4	0,7
Durangaldea	248.868	3,6	6,8
Enkartzioak	35.467	0,5	1,0
Gernika-Bermeo	103.781	1,5	2,9
Bilbo Handia	3.075.538	45,0	84,5
Markina-Ondarroa	37.161	0,5	1,0
Plentzia-Mungia	113.865	1,7	3,1
<i>Bizkaia guztira</i>	<i>3.638.836</i>	<i>53,3</i>	<i>100</i>
Debagoiena	122.668	1,8	5,8
Bidasoa Beherea	267.492	3,9	12,7
Debarrena	160.145	2,3	7,6
Donostialdea	1.178.978	17,3	55,9
Goierri	102.931	1,5	4,9
Tolosaldea	97.030	1,4	4,6
Urola Kosta	177.995	2,6	8,4
<i>Gipuzkoa guztira</i>	<i>2.107.239</i>	<i>30,9</i>	<i>100</i>
<i>EAE guztira</i>	<i>6.808.201</i>	<i>99,7</i>	
EAEtik kanpo	22.371	0,3	
Guztira	6.830.572	100	

Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina

Irudia 67. Joan-etorrien banaketa helmugaren arabera. Oinarrizko kasua: laneguna - negua

Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina

D.2.3 Joan-etorrien saldoaren azterketa eskualdearen arabera

Eskualde bakoitzak sortzen eta jasotzen duen joan-etorrien bolumena aztertu ondoren, eskualde bakoitzaren joan-etorrien saldo garbia kalkulatu da. Horri esker, uda eta neguaren artean gerta daitezkeen fluxu-aldaketak identifika daitezke: neguan sortzen dituztenak baino joan-etorri gehiago jasotzen dituzten eskualdeak, eta, udan, berriz, jasotzen dituztenak baino joan-etorri gehiago sortzen dituztenak, eta, alderantziz, adibidez. Horrez gain, lanegunen eta lanegunak ez diren egunen artean (larunbatak eta igandeak edo jaiegunak) gerta daitezkeen aldaketak ere identifika daitezke.

Saldoak eskualde bakoitzeko bidaia-fluxu garbia adierazten du, eta honela kalkulatu da: jasotzen dituen joan-etorriak sortzen dituenekiko (joan-etorriak helmuga gisa – joan-etorriak jatorri gisa). Balio absolutu gisa eta ehuneko gisa aurkezten da jatorri gisa sortzen dituen joan-etorriekiko.

Ehunekoie dagokienez, Añana edo Arabako Mendialdea bezalako eskualdeak nabarmen badira ere, joan-etorrien fluxu oso txikia dutenez, ez dira garrantzitsuak. Hala ere, interesgarria da azpimarratzea, neguko batez besteko lanegun batean, Donostialdeak igortzen dituenak baino 60.291 joan-etorri gehiago jasotzen dituela. Bizkaiaren kasuan, Bilbo Handian hasten direnak baino 47.496 joan-etorri gutxiago amaitzen dira. Bai Arabak, bai Bizkaiak saldo negatiboa dute (-% 1,4 eta -% 1,2, hau da, 14.640 eta 42.936 joan-etorri gutxiago sortu dira, hurrenez hurren).

Taula 71. Joan-etorrien banaketa eskualdearen eta jatorri/helmugaren arabera. Oinarrizko kasua: laneguna - negua

Eskualdea	Joan-etorriak jatorri gisa	Joan-etorriak helmuga gisa	Saldoa	Saldoa (%)
Añana	7.018	6.190	-828	-11,8
Arabako Kantaurialdea	77.152	78.576	1.424	1,8
Gorbeialdea	10.976	11.379	403	3,7
Arabako Lautada	961.850	945.472	-16.378	-1,7
Arabako Mendialdea	3.544	3.975	431	12,2
Arabako Errioxa	15.111	16.534	1.423	9,4
Araba guztira	1.075.651	1.062.126	-13.525	-1,3
Arratia-Nerbioi	23.277	24.156	879	3,8
Durangaldea	247.050	248.868	1.818	0,7
Enkartzioak	34.382	35.467	1.085	3,2
Gernika-Bermeo	101.819	103.781	1.962	1,9
Bilbo Handia	3.123.035	3.075.538	-47.497	-1,5
Markina-Ondarroa	36.151	37.161	1.010	2,8
Plentzia-Mungia	115.399	113.865	-1.534	-1,3
Bizkaia guztira	3.681.113	3.638.836	-42.277	-1,1
Debagoiena	124.514	122.668	-1.846	-1,5
Bidasoa Beherea	270.939	267.492	-3.447	-1,3
Debarrena	162.373	160.145	-2.228	-1,4
Donostialdea	1.118.613	1.178.978	60.365	5,4
Goierri	103.171	102.931	-240	-0,2
Tolosaldea	100.352	97.030	-3.322	-3,3
Urola Kosta	172.878	177.995	5.117	3,0
Gipuzkoa guztira	2.052.840	2.107.239	54.399	2,6
EAE guztira	6.809.604	6.808.201	-1.403	0,0
EAEtik kanpo	20.969	22.371	1.402	6,7
Guztira	6.830.573	6.830.572	-	-

Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina

Hiriburuak bakarrik aztertuz gero, Donostia nabarmentzen da, 62.058 joan-etorri gehiago baititu helmuga gisa jatorri gisa baino. Arabako hiriburuak 16.614 joan-etorriko (-% 1,8) balantze negatiboa du, eta, Bilbok, berriz, ehunekoetan bada ere, balantze nahiko orekatua du: -% 0,8. Termino absolutuetan, neguko batez besteko lanegun batean, Bizkaiko hiriburuan hasten direnak baino 10.614 joan-etorri gutxiago amaitzen dira.

Taula 72. Joan-etorrien banaketa hiriburuaren eta jatorri/helmugaren arabera. Oinarrizko kasua: laneguna - negua

Hiriburua	Joan-etorriak jatorri gisa	Joan-etorriak helmuga gisa	Saldoa	Saldoa (%)
Gasteiz	947.589	930.975	-16.614	-1,8
Bilbo	1.292.142	1.281.528	-10.614	-0,8
Donostia	714.984	777.042	62.058	8,7

Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina

D.2.4 Jatorri-helmuga matrizea

Jarraian, neguko lanegun batean egiten diren 6.830.572 joan-etorrien jatorri-helmuga matrizea aurkezten da eskualdeen eta hiriburuaren arabera sailkatuta. Hiriburuak dauden eskualdeei dagozkien balioek (Arabako Lautada, Bilbo Handia eta Donostialdea, taulan «(*)» batekin adierazita) beren lurraldean gauzatzen diren joan-etorriak biltzen dituzte, hiriburua alde batera utzita, matrizean bikoiztasunak saihesteko.

Taula 73. Jatorri-helmuga matrizea eskualdeen eta hiriburuen arabera. Oinarrizko kasua: laneguna - negua

	Añana	Arabako Kantaurialdea	Gorbeialdea	Vitoria-Gasteiz	Arabako Lautada (*)	Arabako Mendialdea	Arabako Errioxa	Arratia-Nerbioi	Durangaldea	Enkartzioak	Gernika-Bermeo	Bilbao	Bilbo Handia (*)	Markina-Ondarroa	Plentzia-Mungia	Debagoiena	Bidasoa Beherea	Debarrena	Donostia-San Sebastián	Donostialdea (*)	Goierrri	Tolosaldea	Urola Kosta	EAĒtik kanpo	Guztira
Añana	2.819	77	51	1.565	24	*	41	50	147	16	16	588	1.410	*	45	*	0	0	243	16	*	0	22	*	7.130
Arabako Kantaurialdea	94	42.314	365	2.889	106	27	47	507	1.687	646	307	4.296	17.174	24	1.051	425	0	106	2.747	1.031	231	535	949	73	77.631
Gorbeialdea	45	385	1.491	756	110	28	37	157	586	69	137	833	3.930	84	238	295	74	276	820	173	88	84	280	*	10.976
Vitoria-Gasteiz	930	4.562	814	789.221	1.427	567	2.577	2.070	8.846	2.086	5.673	10.628	39.490	3.192	4.622	4.888	6.952	6.688	12.456	14.070	5.454	5.579	7.861	6.939	947.592
Arabako Lautada (*)	29	100	108	1.236	4.499	59	31	118	604	*	33	1.397	2.552	43	22	664	21	123	1.689	123	377	193	216	22	14.259
Arabako Mendialdea	*	29	18	440	54	588	68	26	190	*	*	719	732	*	0	130	49	32	349	41	40	41	22	*	3.568
Arabako Errioxa	44	44	36	2.286	40	43	6.197	27	350	209	*	2.611	2.473	55	*	0	0	239	696	166	0	0	84	105	15.705
Arratia-Nerbioi	53	546	139	1.612	107	21	32	3.782	1.433	344	484	1.992	7.672	237	735	613	0	805	1.613	324	258	124	367	16	23.309
Durangaldea	244	2.196	576	7.203	562	158	57	1.557	129.664	1.580	4.443	9.145	37.567	1.888	3.904	3.520	1.132	15.205	10.163	5.196	2.522	1.411	6.709	455	247.057
Enkartzioak	*	838	66	1.888	*	*	132	254	1.896	12.485	230	2.886	12.377	29	830	95	0	0	317	0	114	106	39	72	34.654
Gernika-Bermeo	20	321	117	5.152	48	*	*	416	3.545	223	52.491	4.652	20.707	905	2.558	1.036	*	1.555	5.706	801	51	29	1.447	33	101.813
Bilbo	459	4.133	903	10.076	1.842	1.005	3.203	2.165	10.071	3.139	5.433	1.101.387	47.806	2.297	7.239	5.517	21.196	5.919	13.494	14.136	7.393	4.874	12.958	5.499	1.292.144
Bilbo Handia (*)	1.240	18.428	4.225	37.300	2.628	876	2.406	8.118	41.255	13.474	23.415	49.058	1.397.942	9.238	24.420	25.759	5.765	29.601	48.589	31.390	13.677	6.584	29.623	5.883	1.830.894
Markina-Ondarroa	*	38	102	2.283	49	*	*	324	1.649	*	1.163	2.080	9.457	10.575	536	839	92	1.142	2.265	1.122	308	64	2.021	19	36.128
Plentzia-Mungia	53	1.129	263	4.357	144	27	66	597	4.098	923	2.636	7.253	25.412	392	57.565	1.738	155	991	5.457	741	210	357	1.029	117	115.710
Debagoiena	91	858	309	4.349	618	131	225	745	4.011	86	1.380	4.775	23.288	1.215	1.433	57.991	854	2.473	6.377	3.230	2.560	3.149	4.284	169	124.601
Bidasoa Beherea	0	0	71	4.164	26	0	0	0	926	0	18	17.260	10.173	48	876	1.805	209.725	508	5.556	14.391	1.261	1.666	2.338	126	270.938
Debarrena	0	104	251	5.256	157	49	0	560	15.381	29	1.123	6.717	29.443	1.532	1.304	2.402	189	77.612	8.031	3.779	2.158	1.241	5.041	57	162.416
Donostia-San Sebastián	28	644	747	6.416	959	210	1.417	1.424	7.612	70	2.181	7.589	27.406	2.028	3.631	2.918	3.240	4.286	595.001	29.437	4.053	3.655	8.245	1.818	715.015
Donostialdea (*)	17	615	283	17.706	218	70	128	557	4.739	555	606	16.231	28.978	1.076	1.506	3.528	13.014	3.722	30.587	261.630	4.178	6.830	6.897	571	404.242
Goierrri	64	197	139	6.475	453	38	35	205	2.414	137	157	8.087	7.596	279	211	2.865	567	2.877	6.992	4.179	51.543	3.854	3.959	99	103.422
Tolosaldea	0	429	46	6.531	222	41	0	136	1.375	26	78	6.569	6.262	29	382	2.489	1.684	795	5.492	7.833	3.164	52.298	4.764	104	100.749
Urola Kosta	*	901	258	5.889	166	18	32	365	6.133	*	1.759	9.584	29.329	1.986	912	2.922	2.679	5.364	9.811	7.699	3.330	4.824	78.740	182	172.883
EAĒtik kanpo	*	70	*	5.928	34	*	115	*	389	50	23	5.195	4.838	20	83	254	137	51	2.752	609	104	112	178	0	20.942
Guztira	6.230	78.958	11.378	930.978	14.493	3.956	16.846	24.160	249.001	36.147	103.786	1.281.532	1.794.014	37.172	114.103	122.693	267.525	160.370	777.203	402.117	103.074	97.610	178.073	22.359	6.833.778

Oharra: Jatorri-helmuga erlazio bakoitzerako balioak kalkulatzen, eguneko joan-etorrien batez bestekoa hartzen da kontuan. Guztizkoa batez bestekoen batura da, eta, beraz, ez dator bat aurreko tauletan aurkeztutako balioekin (izan ere, balio horiek eskualde jakin batean jatorria edo helmuga duten joan-etorrien baturaren batez bestekoa dira).

Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina

D.3 Ordezko I. kasuaren ezaugarriak: neguko larunbata

Neguko batez besteko larunbat batean, 6.100.021 joan-etorri egiten dira guztira.

Jarraian, jatorriaren, helmugaren eta EAEko lurraldean eskualde mailan gertatzen diren jatorri-helmuga fluxuen arabera zehazten dira joan-etorrien ezaugarriak.


D.3.1 Joan-etorrien azterketa jatorriaren arabera

Mugikortasuna joan-etorriaren jatorriaren arabera aztertuz gero, ikus daiteke neguko batez besteko larunbat batean egiten diren joan-etorrien % 54,1 Bizkaian sortzen direla (3.300.378 joan-etorri), eta hori dela joan-etorriak sortzeko ahalmen handiena duen lurraldea. Gipuzkoak joan-etorrien % 30,1 (1.838.747) sortzen ditu eta Arabak % 15,5 (946.848). EAEko joan-etorrien % 0,2k bakarrik du jatorria euskal administrazio-mugetatik kanpo (14.047 joan-etorri).

Joan-etorrien % 46,6 Bilbo Handian hasten dira, % 16,5 Donostialdean eta % 14,0 Arabako Lautadan. Horrek esan nahi du neguko batez besteko larunbat batean egiten diren joan-etorrien % 77,1 hiru Lurralde Historikoetako hiriburuak dauden eskualdeetan hasten direla.

Hiriburuek dagozkien eskualdeetan duten pisua aztertuz gero, alde nabarmenak antzematen dira. Arabako Lautadan sortzen diren joan-etorrien % 98,7 Gasteizen hasten dira; izan ere, eskualdeen artean, horrek du zentralizazio handiena hiriburuan neguko batez besteko larunbat bateko joan-etorriak sortzeari dagokionez. Donostialdearen kasuan, joan-etorrien % 66,1 Donostian sortzen dira, eta, azkenik, Bilbo Handiari dagokionez, eskualde horretan sortutako joan-etorrien % 43,1 Bilbon hasten dira.

Irudia 68. Jatorria hiriburuetakako eskualdeetan duten joan-etorrien banaketa jatorriko udalerriaren arabera. Ordezko I. kasua: larunbata - negua (%)




Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina

Lurraldeari dagokionez, aldeak antzematen dira lurraldearen arabera. Araba da hiriburuaren eskualdean joan-etorrien kontzentrazio handiena duen lurraldea: Arabako Lautadak Araban hasten den mugikortasunaren % 90,3 (854.891 joan-etorri) sortzen du. Bizkaian antzeko egoera gertatzen da: Bizkaian hasitako joan-etorrien % 86,2 (2.845.404 joan-etorri) Bilbo Handian dute abiapuntua. Hala ere, Gipuzkoaren kasuan, Donostialdeak pisu txikiagoa du (% 54,6, 1.004.030 joan-etorri) neguko batez besteko larunbat batean egiten diren joan-etorriak sortzeari dagokionez.

Taula 74. Joan-etorrien banaketa jatorriko eskualdearen arabera. Ordezko I. kasua: larunbata - negua

Jatorriko eskualdea	Bidaiak	%	Lurraldearen %
Añana	6.086	0,1	0,6
Arabako Kantaurialdea	65.525	1,1	6,9
Gorbeialdea	7.617	0,1	0,8
Arabako Lautada	854.891	14,0	90,3
Arabako Mendialdea	2.191	0,0	0,2
Arabako Errioxa	10.538	0,2	1,1
Araba guztira	946.848	15,5	100
Arratia-Nerbioi	15.073	0,2	0,5
Durangaldea	202.415	3,3	6,1
Enkartzioak	29.523	0,5	0,9
Gernika-Bermeo	93.725	1,5	2,8
Bilbo Handia	2.845.404	46,6	86,2
Markina-Ondarroa	27.501	0,5	0,8
Plentzia-Mungia	86.737	1,4	2,6
Bizkaia guztira	3.300.378	54,1	100
Debagoiena	96.901	1,6	5,3
Bidasoa Beherea	286.489	4,7	15,6
Debabarrena	131.309	2,2	7,1
Donostialdea	1.004.030	16,5	54,6
Goierri	87.332	1,4	4,7
Tolosaldea	84.903	1,4	4,6
Urola Kosta	147.783	2,4	8,0
Gipuzkoa guztira	1.838.747	30,1	100
EAE guztira	6.085.973	99,8	
EAEtik kanpo	14.047	0,2	
Guztira	6.100.020	100	

Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina

Irudia 69. Joan-etorrien banaketa jatorriaren arabera. Ordezko I. kasua: larunbata - negua

Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina


D.3.2 Joan-etorrien azterketa helmugaren arabera

Mugikortasuna joan-etorriaren helmugaren arabera aztertuz gero, ikusten da neguko batez besteko larunbat batean egiten diren joan-etorrien % 53,6 Bizkaian amaitzen direla (3.269.471 joan-etorri), eta lurralde horrek duela joan-etorriak erakartzeko ahalmen handiena. Gipuzkoak joan-etorrien % 30,5 erakartzen du (1.862.439), eta Arabak, % 15,6 (952.030). EAEko joan-etorrien % 0,3k soilik du helmuga euskal administrazio-mugetatik kanpo (16.091 joan-etorri).

Joan-etorrien % 46,0 Bilbo Handian amaitzen dira, % 17,1 Donostialdean, eta % 14,0 Arabako Lautadan. Horrek esan nahi du neguko batez besteko larunbat batean egiten diren joan-etorrien % 77,1 hiru Lurralde Historikoetako hiriburuak dauden eskualdeetan amaitzen dela.

Hiriburuak dagozkien eskualdeetan duten pisua aztertuz gero, alde nabarmenak antzematen dira. Arabako Lautadan amaitzen diren joan-etorrien % 98,7 Gasteizen amaitzen dira; izan ere, eskualdeen artean, horrek du zentralizazio handiena hiriburuan neguko batez besteko larunbat bateko joan-etorriak erakartzeari dagokionez. Donostialdearen kasuan, joan-etorrien % 67,4 Donostian amaitzen dira, eta, azkenik, Bilbo Handiak erakarrirako joan-etorrien % 43,3 Bilbon amaitzen dira.

Irudia 70. Helmuga hiriburuetako eskualdeetan duten joan-etorrien banaketa helmugako udalerriaren arabera. Ordezko I. kasua: larunbata - negua (%)




Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egina

Lurraldeari dagokionez, aldeak antzematen dira lurraldearen arabera. Araba da hiriburuaren eskualdean joan-etorrien kontzentrazio handiena duen lurraldea: Arabako Lautadak Araban amaitzen den mugikortasunaren % 89,5 (851.827 joan-etorri) jasotzen du. Bizkaian antzeko egoera gertatzen da: Bizkaian amaitutako joan-etorrien % 85,9 (2.806.844 joan-etorri) Bilbo Handian dute helmuga. Hala ere, Gipuzkoaren kasuan, Donostialdea pisu txikiagoa du (% 55,9, 1.041.299 joan-etorri) neguko batez besteko larunbat batean egiten diren joan-etorriak erakartzeari dagokionez.

Taula 75. Joan-etorrien banaketa helmugako eskualdearen arabera. Ordezko I. kasua: larunbata - negua

Helmugako eskualdea	Bidaia	%	Lurraldearen %
Añana	5.255	0,1	0,6
Arabako Kantaurialdea	64.760	1,1	6,8
Gorbeialdea	9.482	0,2	1,0
Arabako Lautada	851.827	14,0	89,5
Arabako Mendialdea	3.003	0,0	0,3
Arabako Errioxa	17.693	0,3	1,9
<i>Araba guztira</i>	<i>952.020</i>	<i>15,6</i>	<i>100</i>
Arratia-Nerbioi	17.597	0,3	0,5
Durangaldea	201.665	3,3	6,2
Enkartzioak	30.931	0,5	0,9
Gernika-Bermeo	93.680	1,5	2,9
Bilbo Handia	2.806.844	46,0	85,9
Markina-Ondarroa	29.061	0,5	0,9
Plentzia-Mungia	89.693	1,5	2,7
<i>Bizkaia guztira</i>	<i>3.269.471</i>	<i>53,6</i>	<i>100</i>
Debagoiena	95.767	1,6	5,1
Bidasoa Beherea	271.393	4,4	14,6
Debabarrena	136.484	2,2	7,3
Donostialdea	1.041.299	17,1	55,9
Goierri	86.670	1,4	4,7
Tolosaldea	82.793	1,4	4,4
Urola Kosta	148.033	2,4	7,9
<i>Gipuzkoa guztira</i>	<i>1.862.439</i>	<i>30,5</i>	<i>100</i>
<i>EAE guztira</i>	<i>6.083.930</i>	<i>99,7</i>	
EAEtik kanpo	16.091	0,3	
Guztira	6.100.021	100	

Iturria: Telefonía mugikorreko datuak. Geuk egin

Irudia 71. Joan-etorrien banaketa helmugaren arabera. Ordezko I. kasua: larunbata - negua

